arnariak pagatxa du izena: kurpitzarenak ukia. Eta ezkuña ta pagatxa ta ukia, guk yateko baino aberearen urdailerako obeak dira. Lautarikoak dira gizonarentzako arnariak: aledunak, ezurdunak, koskodunak eta pepitadunak. Ale txiki-txikia dute barúnean mâtsak eta pikoak. Edozein mutikok daki ezurdunak zeintzuk diran: kerizak eta mertxikak. Udazkeneko arnariak dira koskodunak: gaztainak, intzaurak eta urak. Sagarak eta udareak, batzuk azal-lodiak izanañen, eztira koskodunak: pipitadunak dira. Arakatzak, masustak eta marubiak ere arnariak dira; ez ordea zugatz-arnariak, mulu-arnariak baizik.

Arnaridun, frutal (árbol); frutera (mujer). *Dirudite*, parecen. *Ao*, boca. *Aritz*, roble. *Ezkur*, bellota. *Pago*, haya. *Pagatx*, fabuco, bellota de haya. *Kurpitz*, madroño. *Uki*, fruto del madroño. *Urdail*, estómago. *Lautariko*, de cuatro clases. *Aledun*, que tiene granos. *Ezur*, hueso. *Kosko*, cáscara. *Pipita*, pepita. *Mâts*, uva. *Piko*, higo. *Edozein*, cualquier, a. *Keriza*, gerezi, cereza. *Mertxika*, melocotón. *Udazken*, otoño. *Gaztaina*, castaña. *Intzaur*, nuez. *Ur*, avellana. *Sagar*, manzana. *Udare*, pera. *Azal-lodi*, de pellejo grueso. *Arakatz*, grosella. *Masusta*, zarzamora. *Marubi*, fresa. *Mulu*, mata. *Baizik*, sino.

XXIII

GIZONAREN BIZIA

Gizonak, bizi izateko, elikaturâ ta asnasâ bear ditu. Yanari ta edariak agotik, zintzurêan barna, urdailera doaz. Asnasâ agotik eta sudurêtatik, eztañian bañuna, biriketara sartzen zaigu. ¿Zer egiten dugu elikatzeko? Yakiak (naiz araki naiz arainki naiz belarkiak) eskuz artzen ditugu; gero, geienak beintzat, sutan eñe naiz egosi. Usain gozoa ematen dutenean, maiera eñatilu batean ateratzen ditugu. Aiztoz zatitu ta zati bat edo beste txalinean artu ta xardeaz agora. Ortzez eta aginez eltzen diogu yakiari, agoan erabili, mamurtu, txuz edo txistuz berâtu ta zintzurêtik zintzurêstera, zintzurêstetik urdailera, igarñi ere bage, sartzen da elikaturâ. Edariak urdaileratzeko ezta bear ez xarderik, ez ortz ta aginik, ez txisturik. Salda bada, xaliaz agora eramaten dugu. Batzuk katilua ezpainerara eramanez, zuru-zuru artzen dute. Ardoa naiz sagardoa naiz txakolina (ura ere bai norbaitek) glan-glan basoan askok edaten dute, bazkalaparia egiten dan egunetan.

Bizi izan, vivir. *Asnasa*, aliento. *Yanari*, comestible. *Edari*, bebida. *Zintzur*, garganta (faringe), *Urdail*, estómago. *Sudur*, nariz. *Eztañi*, garganta (larin-ge). *Eztañian bañuna*, por la garganta, a través de la garganta. *Birika*, pulmón. *Su*, fuego. *Ere*, asar. *Ego-si*, cocer. *Usain*, olor. *Gozo*, dulce, sabroso. *-nean*, cuando. *Mai*, mesa. *Eratilu*, fuente. *Aizto*, cuchillo. *Zati*, pedazo. *Bat edo beste*, alguno que otro. *Txalin*, plato. *Xarde*, tenedor (dimin. de *sarde*, horquilla). *Ortz*, diente. *Agin*, muela. *Eldu*, agarrar. *Mamurtu*, masticar. *Txu*, *txistu*, saliva. *Berâ* blando. *Zintzur-este*, tráquea. *Igañi*, acertar, adivinar. *Salda*, caldo. *Zali*, cucharón. *Xali*, cuchara. *Katilu*, taza. *Ezpain*, labio. *Zuru-zuru* (onomat.), a sorbos. *Ardo*, vino. *Sagardo*, sidra. *Txakolin*, chacolí. *Norbait*, alguien. *Edontzi*, vaso. *Bonbil*, botella. *Glan-glan* (onomat.), de beber ingurgitando. *Bazkalapari*, merienda-cena.

XXIV

GIZONAREN GORPUTZA

Zugatzak bezela, gizonak ere goian burua, erdi-inguruan soina ta bealdean oinak ditu. Auñena aztertu dezagun burua. Buru-ezuñak kaskaña edo garâ du izena. Ezur au gogoña baita, gaitz izaten da zulatzen. Kaskar-bañun-ean garunak tolesturik bezela dauzkagu. Lañua ere, burukoa, beso naiz istar-lañua baino zailago da. Buru-lañua ilez estalita agitz egoten da. Burusoilak txapelaz estaltzen dute

buru-laia. Buruan ditugu zentzunik goratsue-
nak: ikusmena begietan, entzumena belarrie-
tan, sudurétan sumoa, mingainean gozamena.
Musua edo aurpegia du izena buruaren aurre-
aldeak. Bekokia, lokiak, masailak eta koko-
tza eztitu inork estaltzen, inauteri-egunetan
baizik. ¿Zertarako otedira bizaia ta betileak?
Belari ta sudur-zuloetan ere ileak ernetzen dira.

Goian, (en) arriba. *Erdi-inguruan*, casi al medio.
Inguruan, alrededor. *Bealde*, parte baja. *Aurena*, lo
primero. *Aztertu*, analizar. *Kaskar*, gara, cráneo.
Gogor, duro. *Gaitz*, difícil. *Zulatu*, agujerear. *Garun*,
seso. *Tolestu*, doblar, plegar. *Laia*, cuero. *Beso*,
brazo. *Istar*, muslo. *Zail*, correoso, duro. *Ile*, pelo.
Burusoil, calvo. *Txapel*, boina. *Goratsu*, importante.
Ikusmen, vista. *Begi*, ojo. *Entzumen*, (sentido del)
oído. *Belari*, oreja. *Sumo*, olfato. *Mingain*, lengua.
Gozamen, (sentido del) gusto. *Musu*, aurpegi, cara.
Aure-alde, parte delantera. *Bekoki*, frente. *Loki*, sien.
Masaila, carrillo. *Kokotz*, barbilla, barbadilla. *Inork*
ez, nadie. *Inauteri*, carnaval. *Baizik*, sino. *Bizar*,
barba. *Betile*, pestaña. *Zulo*, agujero, fosa. *Erne*,
brotar, germinar.

XXV

GIZONAREN SOINA. A) EZURAK

Buruan ta oinetan bezela, soinean ere ezur-
ak, zirinak, euskariak, eta ontzixkoak ditu gi-
zonak. Ezurik andiena, zabalena beintzat,

buruezuía da: kaskaía. Ezur luzênak istaí-
ezuía, besatzakia ta bernazakia dirudite. Sai-
etsezuíak luzexkoak dira, istaíekoa bezen
luzeak ez. Bi ezur alkartzen diran unea, txo-
koa da. Ona emen txoko ezagunenak: belaun-
txokoa, lepatxokoa, besatxokoa ta beaztxo-
koa. Eskubituía ta txorkatila ere txokoak dira:
eskubituía esku- ta beso-artean dago; oin- ta
berna-bitartean txorkatilâ. Beíeun ta geiago
omendira gizonaren ezur ta exuíak. Ezuíutsa-
ren taiua ematen diote eriotzeari, eskuan sega
zoíotz bat duela.

Ezur, hueso. *Zirin*, humor. *Euskaíi*, filamento.
Ontzixko, vasos (del organismo). *Istaíezur*, fémur,
hueso del muslo. *Besazaki*, caña del brazo. *Bernaza-
ki*, tibia, caña de la pierna. *Saiets*, costado. *Bezen*,
bezain, tan... como. *Istaíekoa bezen luzeak ez*, no
tan largos como los del muslo. *Alkartu*, ponerse en
relación, aliarse. *Une*, espacio, trecho. *Txoko*, articu-
lación. *Eskubitur*, muñeca. *Bitartean*, entre. *Txorka-
tila*, tobillo. *Beíeun*, doscientos. *Exur*, huesecillo.
Ezuíuts, esqueleto; lit. puro hueso. *Taiu*, figura.
Eriotze, muerte. *Sega*, guadaña. *Zoíotz*, afilado.
Duela, teniendo.

XXV—B

ZIRINAK

Belarkiak bezela gu ere ezoak gera. Gorpu-
tza, igartuezkero, ilotz egiten da ta ileíira

zeñaldotan eramaten dute. Gure bañuneko ezotasun edo zirin ezagunenak auetxek dira. 1.º *Txua*, beste izenez *txistua*. Agotik ateratzen dugu au, batez ere gauza gazia (esaterako, gibeli gordina) yaten dugunean. 2.º *Bildería*, beste izenez *aduía*. *Lerdeia*, beste izenez *barautsa*, bilder-antzekoa da ¡lodiago izatea! 3.º *Goñoa*, biriketatik ateratzen dan lerre iguingaria. 4.º *Izerdia*, zirin oni esker dakigu, gure gorputza bae bat bezelakoa dala, txuloduna. Egun beroetan eta lan neketsuetan izerdia mara-mara bekoki ta lokietatik erortzen zaigu. 5.º Suduraren erpin-erpinean (punñapunñan) agertzen dan ñanñoak izen asko ditu: *zinzaria*, *dindiña*... ta abar. 6.º Suduretakoa da *mukia* edo muskila ere. Aurak eztatite au kentzen. 7.º (*Makarak* batzuen izketan, *pistâk*) begietatik ateratzen dira. 8.º *Urberdeak* gibelatik ateratzen dira. 9.º *Beaztuna* ere gibeledo zirina da. 10.º *Garnua*. Maskuria (puxika) deritzaion sakel-mota batean sortzen da zirin au. Atxeterak (sendalariak) garnua ikertuz igarten dute maiz eri batek duen gaitza. 11.º *Odola*. Oratz bat sar ezazu naiz beso naiz istařetik eta berealaxe agiri izango da zirin goñi au. 12.º *Zornea*. Aria bezela irtetzen da anditsuetatik eta saldar ori-oritik. 13.º *Kake-*

ria. ¿Nork esango luke? Ezotasun auxe da euskaldun askoren itzetan «zirin» bakaña. Izen zakar ori luzarokoari ematen zaio. Bereala yoaten dana *piri piria* izendatzen dugu. 14.ⁿ *Ugatxiza*. Pusletan sortzen da zirin urtsu au.

Ezo, húmedo. *Igartu*, secarse, quedarse yerto. *Ilotz*, cadáver. *Ileri*, cementerio. *Zeráldo*, ataúd. *-tasun*, derivativo abstracto. *Ezotasun*, humedad. *Txu*, *txistu*, saliva. *Batez ere*, especialmente, sobre todo. *Gazi*, salado. *Bilder*, *adur*, baba. *Lerde*, *barauts*, espuma. *Antzeko*, semejante. ¡*Lodiago izatea!*, ¡sólo que es más grueso! *Goño*, esputo, gargajo. *Birika*, pulmón. *Iguingari*, asqueroso. *Izerdi*, sudor. *Esker*, gracia, s. *Dakigu*, sabemos. *Bae*, cedazo. *Bezelako*, como. *Bae bat bezelakoa da*, es como un cedazo. *Txulo*, agujerito, poro. *Bero*, caliente. *Lan*, trabajo. *Neketsu*, fatigoso. *Mara-mara* (onomat), insensiblemente. *Erori*, caer, se. *Erpin*, punta. *Punña*, puntita. *Gotita*, *tanño*. *Zinzañi*, *dindiñi*, moquita. *Muki*, *muskil*, moco. *Eztakite*, no lo saben. *Makar*, pista, legaña. *Urberde*, *sabelur*, bilis. *Beztun*, hiel. *Gibel*, hígado. *Garnu*, (término comedido), orina. *Maskuri*, *puxika*, vejiga. *Deritzaion*, que se llama. *Sakel*, bolsa, bolsillo. *Sortu*, surgir. *Atxeter*, *sendalari*, médico. *Ikertu*, examinar. *Eri*, enfermo. *Gaitz*, *eritasun*, enfermedad. *Odol*, sangre. *Orátz*, alfiler. *Sar ezazu*, meted. *Berealaxe*, inmediatamente. *Agiri izan*, manifestarse. *Goñi*, rojo. *Zorne*, pus, materia. *Ari*, hilo. *Anditsu*, tumor. *Saldar*, divieso. *Ori*, amarillo. *Kakeri*, disentería.

Itzetan, en las palabras. *Bakar*, único. *Zakar*, torpe, basto. *Luzaroko*, crónico, duradero. *Zaio*, (flexión del verbo auxiliar); *ematen zaio*, se le suele dar. *Piñi-piñi*, bajera. *Ugatxiz*, serosidad. *Pusla*, ampolla de la piel. *Urtsu*, acuoso.

XXV—C

EUSKAÑIAK ETA ONTZIXKOAK

Azterlaria banintz, itz geiago emango nituke. *Sietsa*, ezurak eta zozkoak itsasteko izpimordoa omenda. *Izpia*, aragiaren ariak duten izen au. *Zozkoa*; indartsu batez esatenda «zozkotsua da, zozko edeñak ditu». Odola batetik bestera gorputzean ibilteko odisko mê-mêak dauzkagu: txikienak, mêenak, *zainak* dira; lañixeagoak *zangaitzak*. Biotzera dute yokera odoltanto guziak. Bulañak, biriken bitartez aize emanta, garbitzen du odola.

Azterlari, anatómico. *Itz geiago*, más palabras. *Siets*, tendón. *Itsatsi*, apegar, adherir. *Izpi*, fibra. *Izpi-mordo*, conjunto de fibras. *Zozko*, músculo. *Indartsu*, forzudo. *Zozkotsu*, musculoso. *Batetik bestera*, de uno a otro (se entiende lado). *Odi*, caño. *Odisko*, cañito. *Mê*, delgado. *Zain*, vena. *Zangaitz* (neol.), arteria. *Biotz*, corazón. *Yokera*, querencia. *Yokera izan*, afluir. *Tanto*, gota. *Bular*, pecho. *Aize eman*, soplar, dar aire (viento).

XXVI

AIDEAK

Aita batek eta ama batek beren aurákin supizgu bat egiten dute. Ezkontzegunetik aurera bata senaía da; bestea, emaztea; bi ezkontideak, senar-emazteak. Senaía ilezkero, alarguna da emaztea. Naiz bata naiz bestea ilorduan, seme-alabâk zurtzak dira, umezurtzak. Auía ta umea eztira berdín: auía gizakia da; umea, abere naiz aráin naiz txoria izan diteke. Irutarikoak dira gizon naiz emakume baten aideak: asabâk edo auíetikoak, adinideak eta ondorengoak. 1. Auíetikoak: aita ta ama (beste izenez gurasoak), aitona ta amona, biráitona ta birámona, erenaitona ta erenamona, laurdenaitona ta laurdenamona. Osa-ba ta izeba, ginaíaaba ta aubea (beste izenez, aitaginaíaaba ta amaginaíaaba) ere auíetiko aideak dira. 2. Adinideak: anaia ta aréba, neba ta aizpa; lengusu, birkusu, erengusu ta laurdengusu. (Aidea emakumea danean, askok esaten dute: lengusina, birkusina, erengusina, laurdengusina). 3. Ondorengoak: semea ta alaba, birloba, erenloba, laurdenloba; iloba;

suina ta érana. Neskazarak eta mutil zarak ez tute ondorengorik izaten.

Bada beste aidetasun mota bat ere. Aurdun alarguna ezkontzen danean, aide auek eza gutzen dira : ugazaita edo aitordea, ugazama edo amordea, ugazaurak, ugasemea edo semordea, ugazalaba edo alabordea, ugazanaia edo ařebordea edo ařeberdia, ugazneba edo nebordea edo neberdia, ugazaizpa edo aizpordea edo aizperdia.

Aidetzat dauzkagu beste auek ere: aitabitxi, amabitxi, semebitxi ta alabitxi.

Aita, padre. *Ama*, madre. *Aur*, niño. *Supizgu*, hogar, familia. *Senar*, marido. *Emazte*, esposa. *Ezkontide*, consorte, cónyuge. *Senar-emazteak*, marido y mujer. *Alargun*, viudo, viuda. *Ordu*, hora. *Ilorduan*, al morir, a la hora de morir. *Zurtz*, *umezurtz*, *aurzurtz*, huérfano. *Asaba*, *aurético*, ascendiente, antepasado. *Adinide*, coetáneo. *Ondorengo*, descendiente. *Gurasoak*, los padres. *Aiton*, abuelo. *Amon*, abuela. *Biraiton* bisabuelo. *Biramon*, bisabuela. *Erenaiton*, tatarabuelo. *Erenamon*, tatarabuela. *Laurdenaiton*, *laurdenamon*, abuelos de generación anterior a *erenaiton*, *erenamon*. *Osaba*, tío. *Izeba*, tía. *Ginañaba*, *aitaginañaba*, suegro. *Aube*, *amaginañaba*, suegra. *Anae*, *anai*, hermano (de varón). *Areba*, hermana (de varón). *Neba*, hermano (de mujer). *Aizpa*, hermana (de mujer). *Senide*, *auride*, *nebañeba*, *anai-areba*, hermanos entre sí (de los dos sexos, los dos

últimos vocablos). *Lengusu*, primo carnal. *Birkusu*, *bestelengusu*, *lengusu txiki*, primo segundo. *Erengusu*, tercer primo. *Laurdengusu*, cuarto primo. *Lengusu-lengusinak*, los primos y primas. *Lengusina*, prima carnal. *Birkusina*, *bestelengusina*, *lengusina txiki*, segunda prima. *Erengusina*, prima tercera. *Laurdengusina*, cuarta prima. *Seme*, hijo. *Alaba*, hija. *Birloba*, nieto. *Erenloba*, biznieto. *Laurdenloba*, tataranieto. *Iloba*, sobrino. *Iloba txiki*, sobrino segundo. *Suin*, yerno. *Eran*, nuera. *Neskazar*, solterona. *Mutilzar*, solterón. *Ugazaita*, *aitorde*, padrastro. *Ugazama*, *amorde*, madrastra. *Ugazaur*, hijastro de uno u otro sexo. *Ugaseme*, *semorde*, hijastro. *Ugazalaba*, *alaborde*, hijastra. *Ugazanai*, *anaiorde*, *anaierdi*, hermanastro. *Ugazañeba*, *añeborde*, *añeberdi*, hermanastra. *Ugazneba*, *neborde*, *neberdi*, hermanastro (de una mujer). *Ugazaizpa*, *aizporde*, *aizperdi*, hermanastra, (de una mujer). *Aitabitxi*, padrino. *Amabitxi*, madrina. *Semebitxi*, ahijado. *Alabitxi*, ahijada. *Ugaz*, denota la idea de nutricio; *orde*, vale por sustituto, vicegerente; *erdi*, es medio. *Ugazanai*, hermano nutricio; *anaiorde*, prohermano, hermano reemplazante; *anaierdi*, medio hermano. En varios dialectos se valen de *aizun*, *izun* «falso» para indicar esta idea de padrastro..., etc.

XXVII

GIZONAREN ESTALKI TA APAINGAÑIAK

Abereak eztu estalkirik bear otzari yarkiteko : bakoitzak bere ilea aski du. Gizona

(gure artean beintzat) otzez ilko litzake, estalkirik yantziko ezpalu. Estalki auek irutarikoak dira : burukoak, soinekoak eta oinetakoak. Burukoen izenak geienak dira arótzak : txapela, kapelâ, txota, txanoa, marmota (auren burukoa da au). Emakumeak, ezkondata gero, zapia erabilten zuten buruan. Soinekoen izenak ere batzuk, gutxienez, erderazkoak dira: soingainekoa, yakea, koratiloa, txamañâ, txartesa, prakak, gona, goruntz, besana, geriko, mendel. Apaingarítzat ñañaña ere erabilten dute gizon askok. Baseñitxoetan alkateak gotzaina (obispoa) datorénean yartzen du ñañaña; zeatzago esateko, alabak yartzen dio.

Estalki, cubierta. *Apaingarí*, adorno. *Yarki*, oponerse, resistir. *Beintzat*, por cierto. *Otz*, frío. *Ilko litzake*, moriría (él). *Yantzi*, vestir. *Yantziko ezpalu*, si no vistiera (él). *Buruko*, montera. *Soineko*, vestidura. *Oinetako*, calzado. *Arótz*, extranjero, forastero. *Txapel*, boina. *Kapela*, sombrero. *Txota*, gorra. *Txano*, gorro en forma de cono. *Marmota*, gorro de niños. *Zapi*, pañuelo, sabanilla. *Erderazko*, de lengua extraña. *Soingaineko*, sobretodo. *Yake*, chaqueta. *Koratilo*, chaleco. *Txamaña*, elástico, zamarra. *Txartes*, blusa. *Praka*, pantalón. *Gona*, saya. *Goruntz*, justillo. *Besana*, chal. *Geriko*, faja. *Mendel*, ceñidor. *Ñañar*, corbata. *Erabili*, usar, gastar. *Alkate*, endore, alcalde. *Gotzain* (neol), obispo. *Yarí*, poner, colocar. *Zeatz*, exacto.

XXVIII

OTORDUAK

Yaikita batera askok paitara (goizekoa) artzen dute, geroxeago gosari txikia, goizerdian gosaria; batzuk eguerdi-aurrean, amaiketakoa; eguerdian, barazkaria, bazkaria. Aratsaldean askaria, beste izenez lauretakoa, ardo ta guzti jamaika nekezalek artzen du! Emakumeak askaritzat txokolatea dakite artzen. Aparia izaten da uri ta urixko askotan otordurik ugariena. Orduantxe sartzen dituzte yakiak urdailean : araki naiz arainkiak. Bazkaritan salda ta eltzekariz legea egiten dute, aragi ta urdai-puska bat gainerakotzat dutela. Geiegi elikatzeak bizia laburtu ta sakela usutzen dio gizonari. Egiazkoa da aintzinako esakune zar hura : gosaldu, barazkaldu, askaldu ta afaldu ta ondasuna galdu. Gure urdaila berealaxe yartzen da naiz gutxi naiz asko yatera. Salo asko ta ordi gutxi dira euskaldunen artean. Zerbelik, begiak argi-argi dituztela, beredin lugin ikusten ditugu ardantegitik etxera doaztela. Esemeseka ta ibili-ezinik bakantxoren bat, batez ere elizkari egunetan. Euskalerian ere badira oitura txarrik.

Yaikita batera, en cuanto se levantan. *Paitar*, *goizeko*, aguardiente. *Geroxeago*, lit. más lueguito. *Gosari*, almuerzo. *Gosari txikia*, desayuno. *Eguerdi*, mediodía. *Eguerdi-auñean*, antes del mediodía. *Barazkari*, *bazkari*, comida. *Añatsalde*, (la) tarde. *Askari*, merienda. *Lauretako*, lo de las cuatro; merienda. *Nekazale*, artesano. *Txokolate*, chocolate. *Dakite artzen*, saben tomar. *Apari*, cena. *Otordu*, refección. *Legea egin*, cumplir la ley, hacer lo de costumbre. *Urdai*, tocino. *Puska*, pedazo. *Gainerakotzat*, por añadidura. *Geiegi*, demasiado, *Laburtu*, acortar. *Sakel*, bolsillo. *Ustu*, vaciar. *Egiazko*, verdadero. *Esakune*, proverbio. *Gosaldu*, almorzar. *Barazkaldu*, *bazkaldu*, comer (al mediodía). *Askaldu*, merendar. *Afaldu*, *apaldu*, cenar. *Ondasun*, hacienda. *Yari*, acostumbrarse. *Salo*, glotón. *Ordi*, borracho. *Zerbel*, alegrillo (a causa del vino). *Beredin*, mucho, s. *Lugin*, labrador. *Ardantegi*, taberna. *Esemeseka*, tambaleando. *Bakan*, raro, contado. *Elizkari*, funerales, honras fúnebres. *Oitura*, costumbre.

XXIX

SUKALDEAN

Atari zabalak ikusten ditugu basetxêtan, kalekoetan medar-medarâk. Goazen edozein baseñitara, luginak nola bizi diran yakitera. Beren bizitokiak, ataritik bañunera sartuta, toki edatsu bat daukate geienak : eskaratza. Zoko batera bagoaz, sukalde andi bat ikusiko dugu. Suburuaren erdi-inguruan kate beltz

bat, laratza; laratzetik zinzilika pertza naiz mazkelo bat, eznea egosteko. Bi edo iru eltze, txingar ta ileti-arteon, ageri izaten dira. Irakiten asten danean, gainez egiten du saldak naiz ezneak. Orduko asten da etxeko andrea ogia txikitzen, zukua egiteko. Sutondoan beařen diran gauzak auek dira : eguía, iletiak egiteko; txingara egiteko, ikatza; aragia eíreteko, burduntzia; salda ateratzeko, burduntzalia. Baseítaiak eztute txalinik bear izaten. Maiaren erdierdian eítailu bat yaí ta bertatik yaten dute bazkaldar ta apaldaíaak, maikideak.

Sukalde, cocina. *Atari*, zaguán. *Zabal*, ancho. *Basetxe*, cortijo, casa de aldea. *Medar*, angosto, estrecho. *Lugin*, labrador. *Sartu*, entrar, meter, se. *Edatsu*, espacioso. *Eskaratz*, vestíbulo (algunos lo confunden con *sukalde*). *Zoko*, rincón. *Bagoaz*, si vamos. *Suburu*, chimenea, campana de la chimenea. *Kate*, cadena. *Laratz*, llar. *Pertz*, caldero. *Mazkelo*, calderilla. *Eltze*, olla. *Txingar*, brasa. *Ileti*, tizón. *Irakin*, hervir. *Gainez egin*, rebasar. *Salda*, caldo. *Orduko*, para entonces. *Txikitu*, despedazar. *Zuku*, sopa. *Sutondo*, junto al hogar. *Bearén izan*, ser los más necesarios. *Egur*, leña. *Ikatz*, carbón. *Burduntzi*, asador. *Burduntzali*, cucharón (de hierro). *Txalin*, plato. *Eítailu*, fuente. *Bertatik*, desde ella, desde allí. *Bazkaldar*, comensal (asistente a una comida). *Apaldar*, comensal (asistente a una cena). *Maikide*, comensal (en general).

XXX

BIZITOKIA

Basetxe geienak sorailu bakara dute; gutxitan ikusten ditugu ezker-eskubiko bizitokiak. Bealdean eskaratza bezela, goian etsari zabala daukate. Mai ta arasa bat edo beste orma-ondoan. Intzaur-olezko ateak, gelarik adina ate. Gela-baunean altzari gutxi ikusiko ditugu. Oazal garbiak, ori bai. Buruko ta aburdikoak buru-aldean; oazur-gainean lastaira, maindire sendo eunezkoak; burusiak ere, maindireak bezela, bi; bururdi bat. Gaurmairik, ikuzmairik eta arapalarik onelako etxe gutxitan ageri izaten dira. Gure baseñitak ez tira apaingari-zaleak. Neskatxak, iradara yoan nai dutenean, loretxo bat edo bestez papaña apaintzen dute. Emakumeak baseñian soroetan lan geiegi darabilte; beren etxeak gero ez tira txukun-txukunak izaten.

Sorailu, piso. *Bakar*, único. *Gutxitan*, (en) pocas (veces). *Ezker-eskubi*, izquierda y derecha. *Bealdean*, en la parte baja. *Etsari*, sala. *Arasa*, armario. *Orma*, pared, *Intzaur-ol*, tabla de nogal, *Gela*, aposento. *Adina*, tanto... como. *Gelarik adina ate*, tantas puer-

tas como aposentos. *Altzari*, mueble. *Oazal*, cubiertas de cama (mantas, sábanas, colchones... etc.) *Buruko*, almohada. *Aburdiko*, almohadón. *Oazur*, catre. *Lastaira*, jergón. *Maindire*, *izara*, sábana. *Sendo*, fuerte. *Eun* : 1.º lienzo; 2.º cien. *Burusi*, manta. *Bururdi*, colchón. *Gaumai* (neol), mesa de noche. *Ikuzmai* (neol), lavador. *Arápala*, colgador. *Zale*, aficionado. *Neskatxa*, muchacha. *Írada*, danza. *Papar*, pecho (exterior); a diferencia de *bular*, pecho (interior), *Apaindu*, adornar. *Txukun*, aseado.

XXXI

ALDIA

Urteak amabi il ditu : ilbeltza, otsaila, epai-
ila, yoñaila, loraila edo maiatza; garagarila ta
uzta; daguenil ta garoila; uria, azaroa ta ne-
guila edo lotazila. Ona urtearen lau urteza-
roak : uda, udazkena, negua ta udabeñia. Ile-
bete bakoitzak lau aste ta egun batzuk ditu.
Aste bakoitzak zazpi egun : astelena, astear-
tea, asteazkena ta osteguna, ostirala, larun-
bata ta igandea. Gure egunetan baino yai
geiago ziran orain eun bat urte. Oraingoxe
aita santuak ere yaiegun batzuk kendu diz-
kigu. Neguan eguzkia, nagi dalako edo, be-
randu yaikiten da ta gero egunak labor-labor
izan bear. Ilargia ere neguan, otz dalako bear

bada, odeiz erdi-estalirik ibiltzen da izarpean. Orenik (erlojurik) etzanean, euskaldun zañak, gure asabâk, onelaxe negurtzen zuten aldia: goizalde, goiza, goizlena, goizerdia, goizerandua; eguerdi-aurea, eguerdi, eguerdi-ondoa; aratsalde, aratsaldêrdia, aratsalde apala; iluntzea, aratsa, gaua, gaulena, gauerdia, gauberandua, egunsentia ta beriz goizalde.

Aldi, tiempo. *Urte*, año. *Amabi*, doce. *Il*, ilebete, mes. *Ilbeltz*, enero. *Otsail*, febrero. *Epail*, martxo, marzo. *Yorail*, abril. *Lorail*, maiatz, mayo. *Garagañil*, junio (en B. es julio). *Uzta*: 1.º mies; 2.º julio. *Uztail*, julio. *Daguenil*, agosto. *Garoil*, septiembre. *Urri*, uril, octubre. *Azaro*: 1.º sementera; 2.º noviembre. *Neguil*, lotazil, diciembre. *Urtezaro* (neol), estación del año. *Uda*, verano. *Udazken*, otoño. *Negu*, invierno. *Udaberri*, primavera. *Bakoitz*, cada, cada uno, cada cual. *Aste*, semana. *Zazpi*, siete. *Astelen*, lunes. *Astearte*, martes. *Asteazken*, miércoles. *Ostegun*, jueves. *Ostirral*, viernes. *Larunbat*, sábado. *Igande*, domingo. *Yai*, fiesta. *Orain eun bat urte*, hace cosa de cien años. *Aita santu*, papa, padre santo. *Yaiegun*, día de fiesta. *Kendu*, quitar. *Eguzki*, sol. *Nagi izan*, tener pereza. *Nagia izan*, ser perezoso. *Edo*, probablemente. *Ilargi*, luna. *Otz*, frío. *Otz izan*, tener frío. *Otza izan*, ser frío. *Bear bada*, quizá. *Odei*, nube. *Estali*, cubrir. *Izar*, estrella. *Oren*, erloju, reloj. *Etzanean*, cuando no había. *Negurtu*, medir. *Goizalde*, amanecer. *Goiza*, *goizlen*, la primera parte de la mañana. *Goizerdi*,

media mañiana. *Goizberandu*, mañiana muy entrada, tardía. *Eguerdi-auñea*, antes del mediodía. *Eguerdi-ondo*, después del mediodía. *Añatsaldea*, la tarde. *Añatsaldêrdi*, media tarde. *Añatsalde apal*, muy entrada la tarde. *Iluntze*, (el) anochecer. *Añats*, noche (*soir*, francés). *Gau*, noche (*nuit*, francés). *Gaulen*, primeras horas de la noche. *Gauerdi*, media noche. *Gauberandu*, muy avanzada la noche. *Egunsenti*, aurora.

XXXII

OGIBIDERIK EZAGUNENAK

1. *Itsasgizonak* ontzi andietan itsasoak austen ibiltzen dira, kai batetik bestera zama andiak daramazkitela.

2. *Añantzalên* bizikera, bizikera gogoña da. Naiz uda naiz negu goiz-goizetik yaiki, elikatura uria, añaia len ugariago, eriotzea beti urbil ta zoña zoñaren gainean. Onela ere añantzale zañak esaten dute : aintzinako añantzalên aldean egungoak erege bezelaxe bizi dirala.

3. *Arginak* arobietatik aña atera bear dute, aña-koskoz añaesiak eta ormak egin ta aña andiak landu. Begira gure eliza galant edeñak. ¡Amaika izerdi, amaika lan neketsu bear izan dira, lanketa añaigari oriek burutzeko!

4. *Zuritzailên* nekeak ez tira arginenak bezen andiak. Latsuna (karea) oratu ta ormak karez (latsunez) zuritu : auxe da zuritzailên lana.

5. Irugañen ta laugañen nekazaleak beti zutik ari diranez, *dendariak* eta *yostunak* beti eserita ari izaten dira lanean. Aria, oratz ta yostoratzak, guraizeak eta gero oial ta eun ta miesak bear izaten dituzte. Gai auek naiz ilezko naiz arizko naiz aereunezkoak (sedazkoak) izaten dira.

6. Egungo egunean (gaur egunean) *mandazainak* txit uritu dira. Len mandoz ekarten zituzten ardo ta gaimela (olioa), gure egunotan burdinbidez eltzen zaizkigu. Itsasaldetik araina eramaten zuten Napañoara ta beste ardo-erietara : arain gazitua.

7. *Zorotzaile* geienak dira arotzak. Etzazio bati ere euskeraz entzuten. Orain ogei ta amar bat urterarte, bizkañean erabilten zuten beren tramankulua. Aspaldion bultzaka erabilten dute zirika ta deadar egin gabe arizko txilibitua yoten dute.

8. *Ardangizonak* aintzina txiribogin zuten izena; gure egunetan, erderaz bezela izendatzen ditugu. Zaragi ta zarakoetan ekarten dute ardo, beltz naiz zuria.

9. Oiloak beti ikusiko dituzu bêra begira ta aztañrika edo atzez luña aztertzen. *Bidezainak*, ordea, gutxitan ikusiko dituzu aitzuñ eskuan dutela, lanean. Bidezainen ogibidea ere ezta zaña Euskalerian. Oraintxe lau gizaldiarte ezta ezagutu bide zabalik, eñegebiderik; eta bidezainik ere ez.

10. *Lugintzea* da, enura gabe, ogibiderik zañena. Luginak fresna ta lanabes asko bear dituzte : aitzuñak eta laiak, goldea ta area, eskuarea ta idauña. Uritik uruti bizi izaten diralako noski, luginak ezagutzen dituzte ogibiderik geien : argin ta zur itzaile; arotz, zurgin eta artzain; okin ere izaten ziran lenago. *Sugin* edo *eñementari* eztira izaten.

11. *Arotz* edo *zurginen* ogibideak, antzekoak izanañen, eztira berdinak. Zurginen lanak zakañagoak izaten dira : basoan zugatzak eratsi ta landu, etxêtarako abeak eta zutoinak gertatu ta beste onelako zerbait. Arasa ta altzari printzelenak arotzen eskuetatik ateratzen dira.

12. Oski-ordez gure asabak agitz abarkak oineratu oi zituzten. Abarkak egiteko, gure baseñitañak etzuten inor bear izaten. Onegatik *abarkaginen* edo *zapatarien* ogibideak orain bosteun urte etziran emen ezagutu izango.

Abarketariak ere oraintsukoak dirudite gure artean.

13. *Artzainen* lana ezta bakar-bakarrik artalde-atzetik txistuka ta arika ibiltea. Artilezko galtzerdiak, gazta, gaztanbera ta gurina beren eskutikoak dira. Beitalde ta beortaldeak baino artaldeak ugariago diralako, beorzainizenik ere eztegu entzuten; beizainak gutxitan aitatzen ditugu. *Txeñizainak* bai, maizko edo saritxo.

14. *Urizainak* ere badira; baina, uri andietan beinik bein, euskaldunik gutxi ezagutzen dugu beren artean. Aldiz *elizainak*, urietan ere, guztiak dira euskaldunak.

1. *Ogibide*, empleo. *Itsasgizon*, marino. *Ontzi*, *untzi*, buque. *Autsi*, romper. *Kai*, puerto. *Zama andiak daramazkitela* llevando grandes cargas.

2. *Arantzale*, pescador. *Bizikera*, vida (modo de vivir). *Gogor*, duro. *Naiz uda naiz negu*, lo mismo en verano que en invierno. *Goiz-goizetik*, muy temprano. *Goizean goiz*, *goizean goizetik*, a la mañana temprano. *Uri*, escaso. *Eriotze*, muerte. *Beti*, siempre. *Urbil*, cerca. *Uruti*, lejos. *Zor*, deuda. *Aintzina-ko arantzalên aldean*, en comparación de (al lado de) los pescadores de antaño. *Egungoak*, los de hoy. *Erege*, rey.

3. *Argin*, cantero. *Arobi*, cantera. *Ari-koško*, trozo de piedra. *Aresi*, muro. *Orma*, pared. *Landu*, labrar. *Begira*, mira, mirad. *Eliza*, iglesia. *Galant*,

magnífico. *Lan*, trabajo. *Neke*, fatiga. *Neketsu*, fatigoso. *Lanketa*, obra. *Arigari*, admirable. *Burutu*, acabar, terminar.

4. *Zuritzaille*, blanqueador, albañil. *Latsun*, *kare*, cal. *Oratu*, amasar.

5. *Irugañen*, tercero. *Laugañen*, cuarto. *Nekazajle*, artesano. *Zutik*, de pie. *Ari diranez*, así como se ocupan. *Dendari*, sastre. *Yostun*, costurera. *Eseri*, sentarse. *Eserita*, sentados. *Ari*, hilo. *Oratz*, alfiler (antiguamente, aguja). *Yostoratz*, aguja. *Guraize*, tijeras. *Oial*, paño. *Miesa*, tela. *Gai*, materia, cosa. *Ilezko*, de lana. *Areun* (neol.), seda, lit. lienzo de gusanos.

6. *Egungo egunean*, *gaur egunean*, en el día de hoy, hoy en día. *Mandazain*, arriero, lit, cuidador de machos. *Gaimel* (neol.) *olio*, aceite. *Burdinbide*, vía férrea.

7. *Zorotzaile*, afilador. *Arotz*, forastero. *Etzaio entzuten*, no se le oye. *Tramankulu*, armatoste. *Aspaldion*, en esta temporada. *Bultzaka*, a empujones. *Zirika*, rueda. *Deadar egin*, clamar. *Txilibitu*, silbato. *Yo*, tocar (instrumentos).

8. *Ardangizon*, *txiribogin*, tabernero. *Erderaz*, en castellano, en lengua extraña. *Zaragi*, odre, pellejo (de vino..., etc.). *Zarako*, bota, lit. pellejito.

9. *Aztañika*, escarbando. *Aztertu*, escarbar. *Bidezain*, caminero. *Aitzur*, azada. *Lanean*, trabajando. *Gizaldi*, generación. *Eregebide*, carretera, camino real.

10. *Lugintza*, agricultura. *Tresna*, trebejo. *Lanabes*, máquina. *Lai*, laya. *Golde*, arado. *Are*, rastra. *Eskuare*, rastrillo. *Idaur*, mayal (para desgranar el

trigo). *Uruti*, lejos. *Arotz*, ebanista. *Zurgin*, carpintero. *Artzain*, pastor ovejero. *Sugin*, *erementari*, herrero.

11. *Zakar*, grosero. *Eratsi*, derribar. *Landu*, labrar. *Abe*, viga. *Zutoin*, poste. *Gertatu*, preparar. *Zerbait*, algo. *Printzel*, fino.

12. *Oski*, zapato. *Abarka*, sandalia vasca, abarca. *Oineratu*, calzar. *Abarkagin*, abarquero. *Zapatarri*, zapatero. *Etziran ezagutu izango*, no se habrán conocido. *Abarketari*, alpargatero.

13. *Artalde*, rebaño de ovejas. *Txistuka*, silbando. *Arika*, echando piedras. *Beren eskutikoak*, obras de sus manos, procedentes de sus manos. *Beitalde*, rebaño de vacas. *Beortalde*, rebaño de yeguas. *Txe-
rizain*, porquero. *Maizko*, *sañitxo*, con alguna frecuencia. *Aitatu*, mencionar.

14. *Urizain*, alguacil. *Beinik bein*, por lo menos. *Elizain*, sacristán.

XXXIII

ERITASUNAK ETA ERMAINUAK

Gizona yaioten dan egunetik erioko daner-arte, maiz egoten da eri edo gaisorik. Ona emen bi zeñendatan gure arteko eritasun ezagunenak, erderazko itz ta guzti.

Agoeri, enfermedad de la boca. *Alboko*, *alborean-
go*, pulmonía. *Aldien*, *biozmin*, epilepsia. *Alditsu*, lunático. *Anburu*, almorrana. *Anditu*, *anditsu*, tumor. *Arien*, *arimen*, mal de piedra. *Aska*, como *sañaski*. *Ats*, sarna. *Baztanga*, viruela. *Beteri*, enfermedad de

ojos. *Bizien*, cáncer. *Bulañetik dago*, está físico. *Burureango*, jaqueca. *Disipula* (sic), erisipela. *Elbari*, parálisis. *Elgoñi*, sarampión. *Estereango*, padecimiento de intestinos. *Ezkabi* (sic), tiña. *Garnu-debeku*, retención de orina. *Gingila*, postilla. *Goñi*, goñina, (Véase *elgoñi*). *Kakeri*, disentería. *Laru*, *laruen*, ictericia. *Legen*, albarazo. *Legenar*, lepra. *Minbizi*, como *bizien*. *Minori*, como *laru*. *Napañeri*, como *baztanga*. *Orainen*, lunar. *Piko*, herida. *Saldar*, divieso. *Sama-ko min*, angina. *Sañaski*, herida grande. *Satar*, gangrena. *Sukar*, calentura. *Txiñimino*, granillos de la piel. *Txistoki*, panadizo. *Txuñuen*, asma. *Umorotz*, escrófula. *Urdailen*, histérico. *Urdaileko min*, dispepsia. *Urdinen*, peca. *Urmin*, hidropesía. *Zainar*, reuma. *Zauri*, llaga. *Zurien*, catarata.

Eritasunak aitatu ditugu nezkerok, beste bi zeñendatan erakutsi ditzagun ermainu agerie-nak.

Ankazabal, perniabierto. *Ankoker*, zambo. *Bepakoitz*, tuerto. *Besomotx*, manco (de brazo). *Betoker*, bizco. *Eñen*, cojo. *Eskumotx*, manco (de mano). *Ezkel*, como *betoker*. *Gor*, sordo. *Erdigor*, medio sordo. *Istañoker*, como *ankoker*. *Istarzabal*, como *ankazabal*. *Itsu*, ciego. *Itsuki*, cegato. *Konkor*, *korkoitz*, jorobado. *Lanbro*, miope. *Lauso*, présbita. *Mutu*, mudo. *Oker*, como *bepakoitz*. *Jinjau*, gangoso. *Sudurmotx*, *surtxe*, chato. *Totel*, tartamudo. *Txatxo*, como *lanbro*. *Urgun*, como *eñen*.

Erio, morir. *Eri*, gaiso, enfermo. *Eritasun*, gaiso, enfermedad. *Zeñenda*, fila, columna. *Min*, dolor. *Ermainu*, defecto físico.

SEGUNDA PARTE

IZKIRIMIRIAK ETA GERTALISKIAK

1. **Isil-misilka.** — Durangar bat aseñez ikusteko, «Durangar sapoa» esatea aski izaten omenzan lenago. Bein Durangar ta Eibartar batek eskatima goña izan omenzuten. Berezi ziranean, Eibartarak lagunai esan zien : «Andiak entzun ditu.—¿Zer esan diok bada?— Durangar sapoa, Durangar sapoa. — ¿Eta ezaldizkik mutuñak autsi?—Nik, ordea, isil-misilka esan.

Izkirimiri, chascarrillo. *Gertaliski* (neol.), anécdota. *Isil-misilka*, cuchicheando. *Durangar*, durangués. *Aseñe*, cólera, ira. *Aseñez*, encolerizado, airadamente. *Omen*, dicen que. *Aski izaten omenzan*, dicen que solía ser bastante. *Lenago*, en otro tiempo, lit. más antes. *Bein*, una vez. *Eibartar*, eibarrés. *Eskatima*, altercado. *Goñi*, vivo, atroz. *Berezi*, separarse. *Andiak*, enormidades, (cosas) grandes. *Bada*, pues. *Mutur*, morro. *Autsi*, romper. *Ordea*, pero.

2. **Suleizean.**—Mutil lotsagabe petral bat yaiegun batez aitortegi-ondoan zegoen. Txanda eldu zitzaionean, apaizaren aurrean belaunikatuta, asi zan bata baino bestea gizenago ogenak (pekatuak) aitortzen. Apaizak, arituta, arimabeltz aren aitormena etenez, esan zuen : «¿Ezotezaigu, oriek entzunta, goiburua gure gainera eroriko?—Oraindino geldi dago beintzat» erantzunez, beriz ere bazeaion geroago gañatzagoak aitortzen. Apaizak ikaraz bezela «mutil : suleizeko atarian ago.—Ni atarian banago, suleize-baunean dago berori» yardetsi zion aogoriak.

Suleize, inpernu, infierno, lit. sima de fuego. Lotsagabe, desvergonzado. Petral, cínico. Yaiegun, día de fiesta. Batez, en un. Aitortegi, confesonario. Zegoen, estaba. Txanda, turno. Eldu, llegar. Apaiz, sacerdote. Aurre, delante. Belauniko, de rodillas. Belaunikatu, arrodillarse. Asi, empezar. Gizen, grueso, cebado. Ogen, pekatu, pecado. Aitortu, confesar. Aritu, admirarse. Arima-beltz, almanegra. Aitormen, confesión. Eten, romper, interrumpir. Goiburu, techo. Erori, caerse. Oraindino, todavía. Geldi, quieto. Beriz, nuevamente. Bazeaion, ya continuaba. Geroago gañatzagoak, cada vez más agrias. Ikaraz, temblando. Yardetsi, replicar. Ao-gori, deslenguado.

3. **Gibel-andi bat.**—Oiutegian, meza nagusitan, apaiza Ebanjelioa kantatzen ari

zan bitartean, *Credoa* idoro ezinez estu zebilen baseñi bateko elizgelaria. *Credo in unum Deum* oiu egin zuen bereteñak. Goikoa, buruz zekientxoa, ematen asi zan: *Patren onipotenten*, eta liburu-oñia batera ta bestera erabiliz, *fatozen seli e terre*. Yañaipena antzi zitzaionean, buruak ematen ziona agoz esaten zuen, latina bailitzan: «itxodon apur batean, emen dek auen batean, oñi zar-zar batean... *et bitan benturi seculi. Ameeeeeen*.

Gibel-andi, cachazudo, de hígado grande. *Oiutegi*, koru, coro. *Meza nagusi*, misa mayor. *Ari zan bitartean*, mientras se ocupaba. *Idoro*, hallar. *Ezinez*, no pudiendo. *Estu*, apurado. *Elizgelari*, sacristán, camarero de iglesia. *Oiu egin*, *kantatu*, cantar. *Bereter*, *apaiz*, sacerdote. *Goikoa*, el de arriba. *Buruz*, de memoria. *Zekientxoa*, lo poco que sabía. *Eman*, producir. *Oñi*, hoja grande. *Yañaipen*, continuación. *Antzi*, olvidarse. *Itxodon*, aguardar.

4. **Ura bai.**—Éroibañen (Napañoan dago Éroibar), Urtasun zeritzaion ardankoi itsu-itsu bat bizi zan. Beraren aideak alegin osoa egin zuten bera bide onera ekarteko. «Edariari kontu egin bear diozu. Idiak ere asez geroztik uzten du.—¿Zer uzten du idiak? Galdetu zuen Urtasunek.—Ura—Nik ere ura bai. (Yazoa).

Eroibar, val de Erro, valle de Erro. *Zeritzaion*, llamado, que se llamaba. *Ardankoi*, aficionado al vino. *Itsu-itsu*, rabioso, muy ciego. *Alegin*, empeño. *Ase*, hartarse. *Asez geroztik*, una vez de hartarse. *Uzten du*, suele dejar. *Yazo*, suceder, acaecer. *Yazoa*, sucedido.

5. **Mezatan eta bezperetan.**—Esnosko seme batek (Eroibañen da Esnos), Garazialdera yoanta, ango bereter bati ardo gozoa saldu zion. Apaiza pozik gelditu zan, ardo ori muxtatu zuenean. Eroibartaña bazetoñen bera-
ren erialderontz. Ezbai bat otu zitzaion elizgizonari ta sorailura irtenik onela itz egin zion: «Adizazu, adi, Esnos. ¿Ardo au mezatan oitu al-liteke?»

—Mezatan eztakit; baina bezperetan bai, nai bezenbat. (Yazoa).

Garazi, antigua merindad de Nabarra, la sexta, que pasó a poder de Francia, como dote que un rey español dió a su hija al casarse con Luis XIV. Su capital es *Donibane Garazi*, por otro nombre San Juan Pie del Puerto. *Ardo gozo*, vino dulce, generoso. *Muxtatu*, saborear, paladear. *-rontz*, hacia. *Erialderontz*, hacia el país. *Ezbai*, duda. *Otu*, ocurrirse. *Sorailu*, balcón. *Meza*, misa. *Oitu*, usarse. *Al*, acaso. *Oitu al liteke*, pudiera acaso usarse. *Bezpera*, vísperas. *Nai bezenbat*, cuanto se quiera.

6. **Suleizean ura.**—Beste askotan bezela, Oreagara ardoa saltzera yoan zan bein Buru-



zuri zeritzaion bat. Kanonigu batek gañazki artu zuen; eta beraren aseñaldiaren azkenean auxe esan zion : «ardoari egotzi oi diozuten ur guzia inpernuan izango duzute. —Yauna, erantzun zion Buruzurik : frantzesak daramaten ur guzia suleizean agertu bear bada, ozkiñialdi edeña izango dute kaltzagoñi aiek. (Yazoa).

Beste askotan bezela, como otras muchas veces. *Oñeaga*, nombre indígena de Roncesvalles. *Gañazki artu*, tratar severamente. *Aseñaldi*, riña, filípica, *Egotzi*, echar. *Oi izan*, soler. *Egotzi oi diozuten ura*, el agua que le soléis echar. *Ozkiñi*, fresco. *Ozkiñialdi*, refrigerio. *Kaltzagoñi*, diablo.

7. **Etxerako tenorea.**—Au ere Eñoibar-koa da. Ardantegitik gauerdi-inguruan, ordirik, sartu zan gizon bat etxean. Emazteak agoak emanala irain egotzi zizkion aurpegira. Senaña isilik ormai elduz gelara zijoan «¿Au aldeko etxerako tenorea?—Emakumea, ¿beste lagun guziak alde eginta ¿bakañik egon bear otenuen? (Yazoa).

Tenore, sazón, hora. *-ala*, todo lo posible. *Agoak emanala*, todo cuanto podía dar la boca. *Irain*, injuria. *Alde egin*, alejarse.

8. **Xuberotar baten eskintza.**—Ilun beltz zan gau batez xuberotar bat mendian bañena zijoan etxaldera. Biderik ezin ikusi zuelarik,

burua yasota, eskintza auxe egin zion Yaungoikoari: «Dxínko Dxáuna: eginzázu ximísta, nik emáinen gásna» (1). Tximistak geroxeago argi egin zuen. Xuberotañak etxeondora iritzi-ta, au esan zion : «órai ihhústen dizüt, nik ez emáinen». (2).

Xuberotar, suletino. Se emplea mucho en diminutivo el nombre, tanto de la región : *Zubero*, como de sus habitantes : *Zuberotar*. *Ilun beltz*, tiniebla cerrada. *Mendian bařena*, monte abajo. *Gasna*, *gazta*, queso. El acento tónico de los suletinos es opuesto al genio de la lengua. *Iritzi*, llegar.

9. **Salomonen ama.** — Besteak bezela, hura ere il zan. ¿Nork eman semeari beñi txarña? Gudamutil (soldadu) batek, zerbait irabaztekotz, bere gain artu zuen arlo gaitz au. Éregerengana urbilduta itz auek ebaki zituen: «Paskoz ilzar, inauteriz ilberñi; Érege Salomonen ama ezta ez gose ez egañi—Orduan il duk.—Eroñek esan duk». Eta gudamutila pozik irabazi zuenaz.

Txar, malo, defectuoso. *Gudamutil*, soldado, literalmente muchacho de guerra. *Irabazi*, ganar. *-tekotz*, a condición de. *Bere gain artu*, encargarse, tomar sobre sí. *Ardo*, tarea. *-gana*, (directivo de seres ani-

(1) Yainko Yauna: eginzazu tximista, nik emango (dizut) gazta

(2) Orain ikusten dut, nik ez (tut) emango.

mados). *Eregerengana*, a (donde) el rey. *Ebaki*, cortar, pronunciar. *Paskoz*, por Pascuas. *Ilzar*, luna vieja, plenilunio. *Ilberri*, luna nueva, novilunio. *Gose izan*, tener hambre. *Egañi izan*, tener sed. *Il duk*, familiar de *il da* «ha muerto». *Eroñek*, tú mismo (activo). *Irabazi zuenaz*, con lo que ganó.

10. **Uretan, kauna.** — *Udaro* agertzen dira, *Lekeitioko* urian, *Urberoagatiko* arotz lañu-beltzeranak; *Eliza* ikustera yoaten dira lenengo, andik kaira. *Urutitik* berak ikusita, mutikoak alkañi deadañez asten dira : «txo, kanpotarñak». Berealaxe biloizturik, yauzi ta zapart egiten dute uretara, igelak legoñetik beren idoira bezela. «*Echa diñero. Lekos. Echa diñero*», luzaro ari izaten dira esaten. Batzuetan egozten diete dirua, beste batzuetan ez. Bein aietariko arotz batek, luñean doi-doi ageri zan mutiko bati, maiterik erderaz galde egin zion : «*Aur ¿ik ere igeri dakik e?—Bai, Kauna.—¿Nun ikasi duk oñen gazterik igeri egiten, nun?—Uretan, Kauna*».

Kaun dicen por *Jaun* en algún pueblo de la costa. *Udaro*, todos los veranos. *Urberoagatiko* arotz lañu-beltzeranak, forasteros de morena piel procedentes de Urberoaga. *An*, allí. *Andik*, desde allí. *Kai*, puerto. *Alkañi*, unos a otros. *Txo*, interjección para llamar a muchachos; es diminutivo de *to*, interjección para llamar a hombres. *Kanpotar*, como

arotz. *Biloiz*, desnudo: variante de *biluts* «en pelo». *Biloiztu*, *bilustu*, desnudarse. *Igel*, rana. *Luzaro*, largo tiempo. *Egozten*, de *egotzi*, echar. *Doi-doi* justamente. *Galde egin*, preguntar. *Igeri yakin*, saber nadar. *Oren gazterik*, de tan joven. *Igeri egin*, nadar.

11. **Aur igarlea.**—Maiz yazoten dana agitu zan gau batez baseñi bateko elizan: *kopoia* ostu zuten. Bereteña, estu, yo oñera ta yo onera ibili zan, baina alpeñik. Inork etzekian nork ostu zuen. Urango larunbat-añatsaldean, aurai zerbait irakasten ari zala, beñiz ere aitatu zuen zorigaitzeko gertaera. «Mundu onetan ezpada, bestean Yaunaren zigoña gainean izango du. ¿Nork ostu otedu kopoia?»—Neronek dakit» erantzun zion mutiko batek.—Etzegok ilakorik, Damaxo. Auren agotik ituñi garbitiko ura bezelaxe ateratzen da egia. Esan zak, maite-maite oñek¿ nork ostu du?—Lapurak» erantzun zuen Damaxok.

Agitu, acaecer. *Kopoi* (sic), copón. *Ostu*, robar. *Bereter*, sacerdote. *Estu*, apurado. *Yo oñera ta yo onera*, acudir a un lado y a otro; lit. dar ahí y dar (pegar) acá. *Alpeñik*, en vano, inútilmente. *Zorigaitz*, infortunio. *Zorigaitzeko gertaera*, el infortunado suceso. *Zigor*, vara. *Etzegok ilakorik*, no hay nadie (conjug. familiar) como tú. *Ituñi*, fuente. *Maite-maite oñek*, tú, amadísimo. *Lapur*, ladrón.

12. **Frantzes bat Soria-aldean.**—Perpiñan-go frantzes buru-arin, salerosle, bein ere izotzik ikusi gabea, Soria-ko erialdean sartu zan. Ain zuzen ere eguna otza zan; idoï ta eretenak izoztuak ziran. Berak gutxien uste zuela, zakur andi bat zaingaz asi zitzaion, usiki edo ozkatzeko ere gogoa erakutsiz, Perpiñandar orek, makurtuz, luřetik ari batzuek artu nai izan zituen; bairan izotzak ari guztiak luřari itsatsiak zeduzkan. Birao izugaři bat esanez ¿nolako eria da España? gaineratu zuen : ¿zakurak lokabe ta ariak lotuak dauzkaten eri au?

Buru-arin, de cabeza ligera. *Salerosle*, comerciante. *Izotz*, hielo. *Erialde*, provincia. *Ain zuzen ere*, precisamente. *Ereten*, acequia. *Izoztu*, helar. *Gutxien uste zuela*, pensándolo él menos, cuando menos lo creía. *Zaingaz*, labrando. *Usigi*, ozkatu, morder. *Erakutsi*, mostrar. *Makurtu*, agacharse. *Birao*, maldición. *Izugaři*, espantoso. *Gaineratu*, añadir. *Lokake*, libre. *Lotuak*, atados.

13. **Itzik bage.**—Ultzama-ko ibarean (Napañoan) senar-emazteak aseře goři bat izan zuten. Gainerako iru egun osoz emazteak etzion senařari itzik ez mitzik egin. Gizonak, laugařen eguna zabaldu zaneboxe, auzoko bati esan zion : zoaz, otoi, apaizarengana, ta

len bai len etorteko, emaztea mintzo gabe dudala-ta. Asnasa batean iritzi zan elizgizona bizitoki artara. Etxeko andrea mailadia ekortzen ari zan. Apaiza ikusi zuenean ¿zer du, bereter yauna, onen goiz agertzeko?—Emakume, erantzun zion, mintzo-bagetua zerala yakinarazi didate». Apaizaren zurumuña belariratu zitzaionean, okulutik argitu zan etxeko yauna ere. «Migel : emaztea mintzo bage duzula ¿ta zer da au?—Au sorginkeriren bat. Ona izango zan *isipua* ekartzea. Berorekin izketan ari da gure Martina; nirekin mintzoa galdua izan du igande-gauetik.

Ibar, valle, vega. *Aseré goñi*, altercado terrible. *Gainerako iru egun osoz*, en tres días completos siguientes (lit. de encima). *Itzik ez mitzik*, ni fu, ni fa, ni palabra. *-gañen*, sufijo ordinal: *irugañen*, tercero; *laugañen*, cuarto. *Eguna zabaldu zane koxe*, en cuanto amaneció, en cuanto clareó el día. *Otoi*, ruego, por favor. *Len-bai-len*, cuanto antes. *Mintzo bage*, sin hablar. *Iritzi*, llegar. *Mailadi*, escalera. *Ekortu*, barrer. *Erantzun*, responder. *Mintzobagetua*, enmudecido, privado de hablar. *Yakinarazi*, hacer saber. *Zurumuñu*, rumor. *Okulu*, cuadra. *Argitu*: 1.º clarear, 2.º aparecer. *Belariratu*, meterse en la oreja. *Sorginkeri*, brujería. *-en bat*, alguno: *sorginkeriren bat*, alguna brujería. *Isipu* (sic), hisopo. *Berori*, vos.

14. **Lo zegoen.** — Bi beteñitar goieñira

yoan ziran yai-egun batez. Bata yokalaria, kartazale itsua; bestea ez ainbeste. Berak zeuden ostatuan, gau-berandurarte naiz goizalderarte, yokuan ari ziran, urtero bezela, inguru-etako zenbait etxekalte. Beteñitar bata gauerdialdean gogaituta, lotara yoan zan. Beraren lagunak, batean galdu bestean irabazi, geroago beroago ziarduan. Alakoren batean diru-muñi gelditu zan; eta lagunaren gelara yoanez, ¿zu, galde egin zion, lorik egin duzu?—Zuen iskanbila ori entzunta, ezin.—¿Zaldibitar txerén oñek irabaziko luke! Asieran ederki ibili naiz, bainan gero ziplatu naute. Bi duro nai nituzke. Eman izkidatzu bi duro. ¿Ezalduzu belaririk?—Lo nago».

Beteñi, lit. pueblo de abajo, parte de Guipuzkoa entre Tolosa y San Sebastián. *Goieñi*, pueblo de arriba, la Guipuzkoa alta, entre Tolosa y Zumarraga. *Yokalari*, jugador. *Kartazale*, aficionado a cartas. *Ainbeste*, tanto. *Ostatu*, posada. *Yoku*, juego. *Urtero*, anualmente. *Zenbait etxekalte*, unos cuantos perdularios. *Gauerdi-aldean*, a eso de la media noche. *Gogaitu*, aburrirse. *Lotara*, a dormir. *Galdu*, perder. *Irabazi*, ganar. *Geroago beroago*, cada vez más caliente. *Ziarduan*, estaba (jugando...). *Alakoren batean*, en esto. *Diru-muñi*, sin blanca, exhausto. *Gelditu*, quedarse. *Iskanbila*, estrépito. *Ezin*, no poder. *Txerén*, diablo. *Asieran*, al comenzar, en el comienzo.

Ederki, bien, hermosamente. *Ziplatu*, pelar, dejar sin céntimo. *Ogerleko*, duro, duro, moneda de veinte reales.

15. **Artoa eta eznea.**—Zaldun aberats batek bi alogereko zituen beraren zugazti batean, urkiak eta altzâk eta ezkiak eta aritzak inausten. Biak ziran mendi-mutilak, aitzurlari ta aizkolari onak, moñosko galantak; itz gutxitan, enda oneko euskaldunak. Iluntzea eldu zanean, agertu zitzaien ugazaba ta bati esan zion: «Aizak, Simon ¿zer yango ike orain gogozen? Yauna, beroék nai baldin badu, esan dezala auřena nire lagunak, nik gero esango dut-eta.—Berdin duk. Esan zak ik orduan, gazte.—Nik, yauna, gogo aundienez, asko izanezkero, eznea artuko nuke artoaz. ¿Eta ik, Simon?—Yauna, lagunak gauzarik onenak artu dizkit ¿eta zer nai du nik esatea?

Zaldun, caballero. *Alogereko*, jornalero. *Zugazti*, arboleda. *Urki*, abedul. *Altza*, aliso. *Ezki*, álamo. *Aritz*, roble. *Inausi*, podar. *Mendi-mutil*, montaraz, lit. muchacho de monte. *Aitzurlari*, cavador. *Aizkolari*, hachero; de *aizkora*, hacha. *Moñosko*, mocetón. *Galant*, gentil. *Enda*, raza. *Iluntze*, anochecer. *Aizak*, atiende; de *adi (tu)* + *zak*. *Yango ike*, comerías. *Gogozen*, con más ganas. *Baldin*, palabra que se emplea para dar más fuerza a la condición. *Nai badu*, *nai bal-*

din badu, si quiere. *Esan dezala*, que lo diga. *Berdin duk* (familiar), es lo mismo. *Orduan*, entonces. *Gazte*, joven. *Artu dizkit*, me los ha cogido. *¿Zer nai du nik esatea?* ¿Qué quiere que yo diga?

16. **Ora pro nobis.**—Barutean (garizuman) txarteletara ziyoazten bein mutiko batzuk. Beren artean txiki-txiki bat sartu zan, noski zertara ziyoan etzekiena. Onen txanda eldu zanean, bereteñak galde au egin zion: «¿Zeinbat Yaungoiko dira?» Muñila isilik. «¿Zeinbat izan ziran apostoluak?» Isilik beñiz ere. «¿Nun il zan Yesukristo gure Yauna ta Eroslea?» Murtik ez orduan ere. «Txotxo ¿ezer bâldakik gero, ezertxo?—Bai, yauna, badakit.—¿Zer dakik?—Letainak.—Tira bada, ori ere zerbait duk.—Asi beroñek, nik *ora pro nobis* dakit eta».

Barute (neol.), *garizuma*, cuaresma. *Txartel*, cédula. *Ziyoazten*, iban. *Mutiko*, muchachito. *Txiki-txiki*, muy pequeño. *Erosle*, Redentor, comprador. *Murtik ez*, ni pío. *Txotxo*, chiquito (al llamar). *Ezer*, cosa alguna. *Ezertxo*, lit. alquito. *Letaina* (sic.), letanía. *Tira*, ea, vamos. *Zerbait*, algo.

17. **¡Bat gora-bêra...!**—Etxe guztietan amon bat bear litzate, andre gazteak aur-azten ikasi dezaten. Joxe zeritzaion aur sapuzti

batek etzuen amonik. Beraren amak Xalomon edozala uste zuen, buru andikotzat zedukan beintzat. Bein ikaskide bat eldu zitzaion ikustaldi bat egitera. Hura ere andre ta ama gaztea zan. Joxeren ama berealaxe asi zan seme burutsuaren arigaritasunak edasten. Ark adina zekien aurik ezin izan zezakeala. ¡Aren burua! Ekañarazi zuen aur yakitun ori. «Tira, Joxe: eman musu andre Teresari. Aratsalde on, esaten da. ¿Zeinbat Yaungoiko dira, Joxe, zeinbat?» Beatzak ezpain-artean zituela, isilik zegoen aurá. «Tira, mutil; ezti zuria beriz emango diat eta esan andre Teresari zeinbat yaungoiko diran.—Bi» erantzun zuen yakintsutxoak. Amak orduan: «bat gora-bêra..., uts andia ere ezta».

Bat gora-bêra..., uno más o menos... *Aur-azi*, criar niños. *Sapuzti*, huraño. *Xalomon*, salomoncito. *Edozala*, que probablemente era. *Ikaskide*, condiscípulo, a. *Ikustaldi*, visita. *Arigaritasun*, maravilla. *Edatsi*, referir. *Ezin izan zezakeala*, que no podía haber ¡*Aren burua!* ¡Qué cabeza! (la de aquel). *Yakitun*, *yakintsu*, sabio. *Andre Teresa*, doña Teresa. *Joxe*, Pepito. *Emango diat*, te he de dar. *Uts*, yerro.

18. **Eskuyokua.**—Bi yudear, Eleazar ta Yonatas, salerosleak biak, alkañekin txango bat egin zuten. Uri andi batera elduta, beren

adiskide batek etxera bazkaltzera eramane zituen. Agokada ta zurut-artean, oi dana, batak au besteak ori, zenbait gertaliski edatsi zituzten. Eleazarék yaten asi zaneko zilarézko txali bat begiz yo zuen. Bestela baitakoan maipera egotzita ¿etzuen, bada, lotsagabeak beraren oski (oinetako) baten barúnean sartu? Yonatasek aisa sumatu zuen lagunaren egitsaria; ala ere isilik zegoen. Berak ere aúrean zan txaliari gogoz begiratzen zion, baina hura ebasteko kemenik etzuen. Mai-yabeari eskeńak emanta, yaikitzekeo zirala, Yonatasek pańiriz esan zion : «Zuk, adiskide, entzun alduzu esku-yokuan trebe-samańa naizela. Astirik eztut geiago egitekeo, bat bai egingo dizut, esker onaren alderako ere. ¿Badakutsu txali au? Sakelean gordeko dut. Txaliari, norabait yoatekeo aginduezkero, lau esanaz batera yoango da. Zerórek ikusiko duzu. «Txalingo: oa Eleazarén eskuiko eskira : bat, bi, iru, lau». Mai-yabeak, zurturik, zilarézko txalia oski ar-tantxe idoro zuen. Eleazarék (eztago birítan esan-beańik) etzuen ontzat artu lagunaren esku-yokua.

Esku-yokua, juego de manos. *Yudear*, judío. *Txango*, excursión. *Adiskide*, amigo. *Agokada*, bocado, bocanada. *Zurut*, trago. *Zilar*, plata. *Bestela baita-*

koan, disimuladamente. *Maipera egotzita*, echándolo (a) debajo de la mesa. *Aisa*, fácilmente. *Sumatu*, olfatear, barruntar. *Egitsari*, hazaña. *Ebatsi*, hurtar. *Kemen*, valor, ánimo. *Maiyabe*, anfitrión, dueño de la mesa. *Pañiri*, sonrisa. *Pañiriz*, sonriéndose. *Entzun aldezu*, habrá usted oído. *Trebe-samaña*, algún tanto hábil. *Esker onaren alderako*, como muestra de gratitud. *Txali*, cuchara; dimin. de *zali*, cucharón. *Txalingo*, cucharilla (doble dimin.). *Agindu*, mandar. *Idoro*, hallar. *Biritan*, dos veces. *Ontzat artu*, tomar a bien.

19. **Igaz bezenbat.**—Gizon sonatsu, erdi bertsolaria eta edale osoa, txarteletara yoan zan. Apaizak, ikusi zueneko, auñak eta nerabeak atzerarazita, «kaisio, Manu ¿doctrina asko ikasi aldugu igaztik onera?—Guk zañak beti, doctrina beñirik ez takigu.—¿Zeinbat Yaungoiko dira?—Yauna, nik ez takidala, beñiren bat sortu ezpada, aurten ere igaz bezenbat». Pañez itotzen asi ziran entzule guztiak: aur, nerabe ta apaiz. Onek, itzik ere ezin ebakita, txartel osoa eman zion Manuri.

Igaz, (en) el año pasado. *Bezenbat*, tanto como. *Sonatsu*, chistoso. *Bertsolari*, improvisador, poeta popular. *Edale*, bebedor. *Atzerarazita*, haciendo recular. *Kaisio*, hola. *Onera*, acá, hasta ahora. *Aurten*, (en) este año. *Ito*, ahogarse. *Entzule*, oyente. *Onek*, (activo), este.

20. **Calahoñako obispua gure artean.**
—Euskaldun asko Calahoñako eliztañak ziran urte aietan (gure gurasoen nerabezaroan), gutxitan, oso gutxitan ikusten zuten gotzaina (obispua) beraren mendekoak. Eta gero ¡yakina! agertzen zanean, ikusnaiago ziran gure aurretikoak. Bizkaiko itsasaldera eldu zan batean, zauta andi bat zedukan gerturik uriko gizon aberatsenak. Egunak aurretigo zebilen bera zetasunik txikienak yakiten: gelan nolako belaunalkia; atarian gauez gaimel-argia ala zezazkoa; maiean... ¡¡a!! maia amabost bat egunez burauste izugarriak eman zitzaizkion. Norbaitek esan zion egoikiago izango zala obispu jaun baten maiean, emakume-ordez, gizonak sehi (serbitzari) izatea. Añantzale bat, itsaszabalean luzaro ibilitako, Calcuta ere ikusitako añantzalea ta txiribogin (ardodun) ospetsuena izan ziran oñetarako autatuak, begiz yoak. Gotzainak elizako sail luzea aitu zuenean, bazkalordua zan ta ¡ots! esan zuen aberatsak : goazemak. Maipuruan eliznagusia eseri zan, beraren eskui maiyabea, ezker arimazaina eta inguruetan endorea (alkatea) ta beste zazpi. Emakumerik bat ere etzan maikide izan : gonadun guztiak sukaldean bazkaldu ziran egun artan. Maia

onedatsi zuteneko agertu ziran gure bi gizonak. Añantzaleak bi zuku-ontzi zekarzkiten eskuetan : batean ogizko zukua, bestean belarnezkoa. Belarnezko zuku onek eraskin luzeak izan zituen gainerako egunetan uri osoan. Beatz nagusiak ontzietan zituela agertu zan Calcuta ikusitako gizona. Turdunak berari goitik bêra begiratuta pañiri egin zuen. Maiyabeak «mutil, esan zion belarira, erpurua barunean dakark.—Ezta axolarik, irakiten ere eztago ta etzait erêko».

Bigarren sehiak ere egin zituen berarenak eta bi. Gure egunetan izan balitz, ormak ere goñituko ziran. Zerbait egin zuen, ordea, itsasuri artan inoiz antziko ezтана. Bi kazpel izugaritan legatz-pilpilada ekañi zuten, lau ala ezta kit boskañen yakitzat. Maipurukoak gogoz yan bai, bainan pilpilada txalinean utzi zuen. Txiriboginak erderaz gutxi zekien itz egiten; alarik ere zetzion bada esan «gozoena uzten zuela; egin zezala ark ere besteak bezela: ogizafia eskuan artu ta txalina bazitu»?

Bazkalondoan maiyabeak, obispuarekin barukotasun-puska bat artuta, itz auetxek zuzendu zizkion: «yauna: barkatu. Alegin osoa egin dut alik egokien berori etxe onetan artzeko. Oñetarako erbestean izandako batzuei

eritzia eskatu nien. Nik, arotz yakintsuak gora-bera, beti lena : maikidetzat, maiean eserita egoteko, gizonak dira gaienak : zutik ibiltzeko, sehi izateko, emakumeak».

Eliztar, feligrés, diocesano. *Nerabezaro*, época de la adolescencia; como *zarzaro*, época de la vejez; *aurzaro*, época de la niñez; *gaztezarro*, época de la juventud. *Oso gutxitan*, muy pocas veces. *Gotzain*, (neol.), obispo. *Mendeko*, súbdito. *Ikusnai*, curioso. *Zauta*, banquete. *Gerturik*, dispuesto. *Zêtasun*, menudencia. *Belaunalki* (neol.), reclinatorio. *Sehi*, *serbitzari*, servidor. *Txiribogin*, *ardodun*, tabernero. *Ospe*, fama. *Ospetsu*, famoso. *Autatu*, *begiz yo*, elegir. *Sail*, tarea. *Aitu*, acabar. *Ots*, ea. *Goazemak*, *goazen*, vayámonos. *Maipuru*, presidencia. *Eliznagusi*, prelado. *Eseri*, sentarse. *Arimazain*, cura de almas. *Endore*, *alkate*, alcalde. *Gonadun*, mujeres, lit. (las) de las sayas. *Onedatsi*, bendecir. *Zuku-ontzi*, sopera. *Eraskin*, comentario. *Tur*, mitra. *Turdun*, el de la mitra, el obispo. *Erpuru*, *beatz nagusi*, dedo pulgar. *Axola*, cuidado. *Ezta axolarik*, no importa, no hay cuidado. *Etzait éreko*, no se me quemará. *Antzi*, olvidarse. *Kazpel*, cazuela. *Pilpilada*, salsa. *Yaki*, principio, comidilla. *Gozoena*, lo más sabroso. *Bazitu*, rebañar. *Barukotasun*, intimidación. *Eritzia eskatu*, pedir parecer. *Arotz yakintsuak gora bêra*, a pesar de los sabios extranjeros. *Gaienak*, los más aptos. *Gai-mel* (neol.), aceite.

21. **Bismarcken aldartea.**— Bismarck-ek noizik noizera, adiskide ta gogaide zen-

bait, maikide izaten zituen. Alako txolartêtan beraren aldartea beti izaten zan alai ta pozkoña. Bein arteki polit auxe edatsi zuen. Warzin-en, atsedeten nintzala, emaztea gaizkitu zitzaidan. Nire ustez etzan ez makal ez zinez eri, maxkalalditxo bat baizik etzuen. Etxeko atxeteña ain zuzen ere txangotan zebilen eta urixko artakoari ots egin nion. Galeno beñiak, tintina artuta gero, ongieztxo bat zuela esan zidan. Zer gerta ere, yauregian egonarazi nion atxeteñari ta, esan-beñik eztago, maiean lagun izan nuen. Ardo zañak zerbelduta, geroago beñitsuago, beraren egitsari auxe edatsi zidan.» Inguruko baseñi batean zezio goña izan zuten mutilak. Bati kaskaña zati-zati egin zioten; garunak ere agerian zituen. Berealaxe deitu ninduten berarengana. Ogeita bost yostotatz bear izan nituen, mutil ari nolabait burua yosteko. Nire ardurai esker, nerabea irugañen egunerako lanean, lenago bezela, asizan».

Sendalariaren edaspen au aituta, Bismarck-ek maikideai esan zien. «Yaunak : zuenartean *Stadtrat* (*consejero de Estadorik*) baldin badago, enaiz azartuko yañaitzen». Olako itunlaririk an etzala erantzun zekionean, onelaxe yardun zuen. «Nik, sinesle-antza era-

kutsiz, atxeter maitea, esan nion : neronek ere oñen taiuko zerbait badut zuri yakinarazteko. Berlingo atxeter entzutetsu batengana buruko ala andidun gizagaiso bat agertu zan. «Ezta sendaezina zure gaitzau; baina onetarako buru ori ustu bear dizut eta etziarte emen utzi bear izango dituzu burmuñok, garunok. Nik garbitu ditzadanean, beñiz buru ori beteta, ala gabe ta sendo-sendo izango zera». Aladuna poz-pezirik irten zan andik. Irugañen eguna elduta ageri etzanean, atxeteñak txarñtel bat bidali zion auxe zirautsala : «zatoz, naiduzunean, garun-bila; kirastu-samar ere badi-
ra-ta». Gizonak, oster, onelaxe erantzun zion : «atxeter yauna : *Stadtrat* egin naute ta eztut burmuñik bear. Warzin-go atxeteña pañe gozaro eginta yoan zan beraren etxera. Geroztik etzidan niri alako aoberokeriarik edatsi».

Aldarte, humor. *Noizik noizera*, de vez en cuando. *Txolarte*, ocasión. *Pozkor*, regocijado. *Arteki*, (neol.), episodio. *Edatsi*, narrar, referir. *Warzin*, palacio en que solia descansar el príncipe de Bismarck. *Atseden*, descansar. *Gaizkitu*, ponerse malo. *Nire ustez*, a mi juicio. *Etzan*, no era, no estaba. *Makal*, enfermo grave. *Zinez eri*, de veras enfermo. *Maxkal*, débil. *Maxkalaldi*, rato de debilidad. *Etzuen*, no tenía. *Atxeter*, médico. *Urixko artakoari*, al de aquel pueblecito. *Ots egin*, llamar. *Ots egin nion*, le llamé. *Tintin*, pulso.

Ongieztxo bat, una ligera indisposición. *Zer gerta ere*, por lo que pudiera suceder. *Yauregi*, palacio. *Egonarazi*, hacer estar. *Zerbel* alegrillo. *Beñitsu*, hablador. *Egitsari*, hazaña. *Zezió goñia*, camorra terrible. *Deitu ninduten*, me llamaron (mejor que *deitu zidaten*). *Nolabait*, de alguna manera. *Yosi*, coser. *Ardura*, cuidado, solicitud. *Sendalari*, como *atxeter*. *Aitu*, acabarse. *Azartu*, atreverse. *Itunlari* (neol.), consejero. *Yardun zuen*, platicó. *Sinesle-antza*, apariencia de creyente. *Taiu*, traza. *Ala*, dolor agudo, vivo; a diferencia de *min*, dolor ordinario. *Gizagaiso*, cuitado, pobre hombre. *Sendaezin*, incurable. *Ustu*, vaciar, *Sendo*, fuerte. *Aladuna*, el de los agudos dolores. *Bidali*, enviar. *Zirautsala* (B), diciéndole. *Kirats*, hedor. *Kirastu-samar*, algo hediondo. *Ostera*, en cambio, al contrario. *Gozaro*, dulcemente. *Geroztik*, posteriormente. *Aoberokeria*, exageración, andaluzada.

22. **Enrike andia ta baseñitar bat.**—
Frantziago Érege Enrike laugarrena baso batean, eizan zebilela, galdu zan. Biderik idoro ezinik estu burua ikusi zuenean, deika asi zan eta baseñitar bat agertu zitzaion. Beraren zaldi-gainean artu zuen au Éregek biderakusletzat. Luginak lagunari gogo min bat, bizi bat, erakutsi zion: Érege ezagutzeko gogoa. Enrikek orduan pañiriz esan zion: «gauza eñazagorik ezin izan liteke. Geldi gaizanean, gizon asko ikusiko dituzu. Orduan zuk ongi

begiratu. Burua estalirik dagoena, huraxe izango da Eége». Ordu-laurden baten buruan eldu ziran bi zaldizkoak beste eizariengana. Berealaxe, burukoak eskuan zituztela, inguratu zuten Enrike beraren lagunak. Baseñitariari esan zion orduan berak: «¡ots!» ¿nor da Eége?—Alegia, erantzun zion aitzurlariak: edo zerori edo nerau, besteok burutsik dira-ta».

Estu, apurado. *Burua ikusi*, verse. *Deika asi*, empezar a clamar. *Biderakusle*, guía. *Gogo min*, deseo ardiente. *Ezin izan diteke*, no puede haber. *Geldi gaizanean*, cuando nos detengamos. *Ongi*, bien. *Begiratu*, mirar. *Burua estalirik*, con la cabeza cubierta. *Huraxe*, aquel mismo. *Ordu-laurden baten buruan*, al cabo de un cuarto de hora. *Zaldizko*, jinete. *Inguratu*, rodear. *¡Ots!*, ea. *Alegia*, liter. así la verdad; equivale a «caramba, por cierto...». *Aitzurlari*, cavador. *Buruts*, descubierta.

23. **Bizargintzan.**—Bizargin geienak bezela, hura ere beritsu bat, izontzi bat zan. Gogaiturik zegoen beraren eskupean bezeroa, egokia. «Zergatik, esan zion, zergatik ari zera, ileak azkortzeko gertaera beltz oriek edasten?—¿Eztakizu zergatik? Ileak, zutik diranean, eñazago moztzen ditugulako.

Bizargintza, barbería. *Bizar*, barba. *Itzontzi*, charlatán; lit. vasija de palabras. *Gogaitu*, aburrirse. *Be-*

zero, cliente. *Egokia*, el parroquiano. *Ile*, pelo. *Azkortu*, poner de punta. *Gertaera*, suceso. *Zutik*, de pie. *Moztu*, cortar, rapar.

24. **Ostatu iski batean.**—Gainera zikina ere bazan ostatu hura. Alarik ere gogo onez ari zan mauta-mauta bazkaltzen gizontxo bat. Eltzekaria eskuan zuela agertu zan sehia ta yalearen papañean zamau zulodun bat ikusirik, auxe esan zion: Emaidazu, otoi, zamau ori, beste bat ekarteko.—Zuloak beintzat garbiak ditu eta utzi pakean.

Ostatu, posada. *Ostatu iski*, ventorrillo. *Zikin*, sucio. *Mauta-mauta*, onomatopeya o imitación del ruido de comer a dos carrillos. *Eltzekari*, potaje. *Yale*, comiente, comedor, la persona que come. *Papar*, pecho exterior. *Zamau*, servilleta. *Emaidazu*, deme usted. *Beintzat*, siquiera, por lo menos. *Utzi pakean*, déjalo en paz.

25. **¡Hura belarñondokoa!**—Ingeles ta Marsella-ko seme batek izkaldia izan zuten: ark, Londrestik Edinburgorako orgadia zala munduko bizkoñena, uxtu andikoena; Marseñak, ostera, beraren uritik Parisakoa askozaz uxtutsuago zala. Bigarñen onek, lenengoa zuritzeko, beronen yazoera auxe edatsi zion. «Lengo egun batez Marselatik Parisa ninjoan. »Niretzako organ sartuta, geluneko nagusia

»etoñi zitzaidan ta geiagoko bage itz goñiz
 »mindu ninduen. ¡Árayopola! esanta, besoa
 »yaso nion, orgadia ibiltan asi zan ta eskua
 »bêratu nuenean ¡plast! Avignongo gelune-
 »zaina belarondoan yo nuen. ¡Marselatik
 »Avignona bideak dira gero!»

Belarondoko, bofetada. *Izkaldi*, disputa. *Orgadi*, (neol.), tren, lit. conjunto de vagones. *Uxtu*, velocidad. *Uxtutsu*, rápido, veloz. *Zuritu*, convencer. *Orga*, vagón. *Gelune* (neol.), estación. *Geiagoko bage*, sin más ni más. *Itz goñi*, palabra insolente. *Mindu ninduen*, me mortificó. ¡*Árayopola!* ¡por vida de...! *Bêratu*, bajar. ¡*Plast!*, onomatopeya de la bofetada. *Gelunezain*, jefe de estación. *Belarondo*, carrillo; lit. junto a la oreja. ¡*Bideak dira gero!*, ¡mire usted que hay caminos!

26. **Aukeran.**—«Zaltzain, begira, gizon, ar zak axola; ez erori bai-erori izan nauk eta abil poliki. Kaletxorko auetan geri-geri ibilteko. Gero nire etxe-auñe-auñean gelditu ¿e? baina, mutil, tokirik tzañenetarik naramak.—Yauna: oitua nago, ez izan belduñik.—Beste zalkurdirik datoñenean, alkar yo eztezagun... baina, mutil ¿zer dituk ezker-eskuikada auek? —Yauna ezer gerta baledi ¿zein eltegitara, zein gaisotegitara eramatea nai du?

Aukeran, a elección. *Zaltzain*, conductor; literalmente cuidador de caballos. *Begira*, mira, mire usted. *Arzak axola*, ten cuidado; lit. toma cuidado. *Ez-erori bai-erori*, entre si caigo o no caigo. *Izan nauk*, familiar de *izan naiz*, he estado. *Abil poliki*, anda poco a poco; lit. lindamente. *Kaletxorko*, bache. *Geri geri, kontuz*, a tientas. *Gelditu*, parar, para. *Toki*, lugar. *Tzar*, malo, (es aumentativo, así como *txar* es diminutivo de *zar*). *Naramak*, me llevas. *Oitua nago*, estoy acostumbrado. *Beldur*, miedo. *Zalkurdi* (neol.), coche. *Alkar yo*, chocar. *Ezker-eskuikada*, bandazo. *Eltegi* (neol.), *gaisotegi*, enfermería.

27. **Tabakoaren yatoñia.**—Igarleak, egurastzera yoan zan goiz batez, suge bat arkitu zuen, otzez kikil, luñean nañaz. Erukiaren, eskuetan artuta, kolkoan sartu zuen, berotu zedin. Sugeak, beroak bizkortu zue-nean, Igarleari onela itz egin zion. «Adi zazu, Yainkozko Igarle, adi zazu. Ozkatu egin bear zaitut.—¡Ozkatu! ¿Zer dala-ta?, itandu zion Mahomak.—Zure endak nirea yazartzen due-lako.—¿Ezaldio, bestera, sugêndak gizendari guda goñia egiten? ¿Oñen eskergabea izango aiz? ¿Antzi alzaik, neri zor didakala bizia?—¡Eskeña! ¡eskeña! ¡gizarteko txatxukeria! Nik zu osorik utziezkero, laster zeroñek edo zure endakoren batek erango nindukezute. ¡Ala Yainkoa! Usigi bear zaitut.—Yainkoaren

zin egin dekanezkero, eztiat nik ezer egingo, ik ire eskintsari ori austeko». Au esanez Igarleak eskua sugearen mutuñera urbildu zuen. Ozkatu zuen nañaztiak; bainan besteak, sakia ezpainez mustatuz, zitala luñera egotzi zuen. Zorne hura luñak iretsitako une hartan belarki bat erne zan, urintzat sugearen zitala ta Igarlearen erukia dituena. Belar onen izena tabakoa da. (Arabiañen ipuina).

Yatorì, origen, ascendencia. *Igarle*, profeta. *Egurastu*, orearse, pasear. *Arkitu*, encontrar. *Otzez kikil*, acoquinado de frío. *Luñean nañaz*, reptando en la tierra. *Erukiañen*, de compasión. *Kolko*, seno. *Berotu zedin*, para que se calentara. *Bizkortu*, reanimar. *Onela*, de esta manera. ¿*Zer dala-ta?* ¿por qué razón? *Itandu*, como *galde egin*, *galdetu*, preguntar. *Itandu* tiene el sentido de interrogar más propiamente que *galdetu*, que es averiguar. *Enda*, raza. *Yazañi*, perseguir. *Bestera*, al contrario. *Guda goñia*, guerra cruel. *Oñen eskergabea*, tan ingrato. *Esker*, gratitud. *Gizar-te*, sociedad. *Txatxukeri*, fatuidad. *Eran* (voz casi anticuada), matar. ¡*Ala Yainkoa!*, como hay Dios, lit. así Dios. *Yainkoañen*, por Dios. *Zin egin*, jurar. *Eskintsari*, voto. *Saki*, herida. *Muxtatu*, chupar. *Zital*, veneno. *Zorne*, pus. *Iretsi*, tragar. *Urin*, zumo. *Ipuin*, cuento.

28. **Armiarma ta erlea.**—Txaraka batean kurpitz-abar-artean, armiarma sabel-andi ori-ori bat zegoen, bere sare mê-mêaren erdi-

erdian geldi. Lo ala ilik zetzan ezagutzea gauza zaila zan. Euli, eltxo ta mandeuliak, sarerik (amaraunik) ikusi bage, beraren arietan itsasten ziraneko, goaitariak berealaxe atzez oratu ta odola mustatzen zien mamutz egalari gaisoai. Goraxeago buñundaka lorez lore zebilen erle eder bat. Beraren buñundarak esnatu zuten sare-yabea ta izketan asi ziran. «¿Zertan ari aiz, erleko?—Yanari-bila ¿ta erori?—Ni bezela eztuk bizi Erege bera ere. Sei euliren odol goñi gozoz nire urdailtxo au bete-betea zeukat. Ero bat aiz i, ero, zoro, buru-arin bat. Ire misto zoñotz ori nire muturëan banik, ire ego buñundalariok nire soinean banitik, enindukek txaraketan eta okuñuetan bizi izango; yauregietara yoango nindukek. Goizean-goizean aur guri mardulen odollez barua autsiko nitek. —Isilik ago, lotsagañi ori. ¿Inoren minez poztu? ¿Bestën atsekabez atsegindu? ¿Eriotzez bizi? Eztiat nik oñela ez poztu, ez atsegindu, ez bizi nai. Neguan ote ta sarats-lorez, udan mañubi ta gerezi-urinez egiten diat eztia. Izakirik uren ta yakintsuenak, gizonak, nire izena goresten ditek. Ire izena ezpainerarako latza ta belañirako gogoña dalaako edo, beti zebiltzek aldatzen. ¡Utikan! Iretzat bizikera tzar ori».

Armiarma, araña. *Txaraka*, jaral. *Kurpitz*, madroño. *Abar*, ramaje. *Sabel*, vientre. *Ori*, amarillo. *Geldi*, quieto. *Ala*, o. *Lo ala ilik zetzan*, si yacía dormido o muerto. *Zail*, correoso, difícil. *Amaraun*, telaraña. *Goaitari*, centinela, vigía. *Oratu ta muxtatzen zien*, les agarraba y chupaba. *Mamutz egalari*, insecto volador. *Goraxeago*, poco más arriba. *Burundaka*, zumbando. *Lorez lore*, de flor en flor. *Burundara*, zumbido. *Esnatu*, despertar. *Sare-yabe*, dueño de la red. *Izketan asi*, empezar a hablar. *Erleko*, abejilla. *Yanari*, comida. *Eztuk bizi*, familiar de *ezta bizi*, no vive. *Erege bera*, el mismo rey. *Odol goñi gozoz*, de sabrosa sangre roja. *Zeukat*, familiar de *daukat*, tengo. *Ero*, fatuo. *Zoro*, loco. *Buru-arin*, de cabeza ligera. *Misto*, *ezten*, aguijón (de abeja). *Zorotz*, afilado. *Banik*, familiar de *banu*, si yo lo tuviera. *Burundalari*, zumbador. *Banitik*, familiar de *banitu*, si los tuviera. *Yoango nindukek*, familiar de *yoango nintzake*, yo iría. *Goizean-goizean*, (en) todas las mañanas. *Guri*, rollizo. *Mardul*, robusto. *Barua autsi*, desayunar; lit. romper el ayuno. *Barua autsiko nitek*, familiar de *nuke*, desayunaría yo. *Lotsagari ori*, tú, vergonzoso. *Inoren minez*, de dolor ajeno. *Poztu*, regocijarse. *Atsekabez atsegindu*, gozar de aflicciones. *Eztiat bizi nai*, familiar de *eztet*, no quiero vivir. *Ote*, árgoma. *Sarats*, sauce. *Egiten diat*, familiar de *dut*, suelo hacer. *Latz*, áspero. *Edo*, probablemente. *Zebilzek*, familiar de *dabilz*, andan. *Aldatu*, cambiar. *Tzar*, perverso.

29. **Izkaldi bitxi bere modukoa.**—Gizon bat, luzaro bidez ibilita, nekaturik zegoela,

beraren atz-beatzak alkañen artean izka asi ziran. Ona oinak esan zutena : «¡Zer! Ezpai-»nak pañez ta burua año dauden artean ¿gu, »puslaz ta maskuñez beterik, nekearen nekez »bizi? Ez, beintzat. Bilatu, mutilak, beste oin »batzuk.» Eskuak, au entzunik, esan zuten : «¿zein atz-beatzek egiten du guk adina lan? »Puslak eta maskuñak guk ere badauzkagu »ta gainera maiz saki ta zauriak ere bai. ¿Eta »au zertarako? Oinak esker txaña guri era- »kusteko. Bilatu, mutilak, beste esku ba- »tzuk». Agoak orduan, beritsuena ere bera zan-ta, auxe gaineratu zuen : «izketan ta oyu- »ka (kantuz) ari izateko, beti gertu nago »¿baina urdail zakar asêzin onentzat, beti »ozka ta mamurtzen, idi-beiak auznañean »bezela? aski da orainartekoa. Urdail zikin »alper nagi oñek, bilazak beste ago bat, ire »moñoi izateko.» Begiak ere aiumaka asi ziran. «Beste atz-beatzok atsedena noiznai »dadukate. Guk, eguzkia ageri dan artean, »beti ernai egon bear. Gauez ere, bateko »añastargia izekitzen dutela; besteko, krisailu- »-argia, argizaizkoa, tximistargia ere bai; ta »gu atsedean bage beti lanean. Bila, mutilak, »beste begi batzuk». ¿Zer yazo zan? Yazo bear zuena. Oinak ibili nai ez, eskuak geldi,

ta agoa ertsia (itxia), begiak betazalpean lo
ta gorputza indarga, aul, makal, eri, ilotz-oe
zikin baten gainean zetzan.

Izkaldi, disputa. *Bitxi*, curioso, raro. *Bere moduko*,
especial, *sui géneris*. *Atz-beatzak*, los miembros.
Izka, a disputar. *Pañez*, riendo. *Año*, orgulloso. *Pus-
la*, ampolla. *Maskur*, callo. *Nekearen nekez*, a fuerza
de fatiga. *Beintzat*, por cierto. *Bilatu*, buscar, buscad,
Guk adina lan, tanto trabajo como nosotros. *Esker
txar*, ingratitude. *Gaineratu*, añadir. *Izketa*, conversa-
ción. *Oyuka* (neol), *kantuz*, cantando. *Zakar*, grose-
ro. *Asêzin*, insaciable. *Onentzat*, para este. *Ozka*,
mordiendo. *Mamurtu*, masticar. *Auznar*, rumia. *Auz-
nañean*, rumiando. *Aski*, bastante. *Zikin*, sucio. *Alper*,
flojo, inútil. *Nagi*, pereza, perezoso. *Alper nagi oñek*,
tú, flojo, perezoso. *Bilazak*, busca. *Moñoi*, criado.
Aiumaka, a lamentarse. *Atseden*, descanso. *Noiznai*,
cuando quiera. *Ernai*, vigilante. *Gauetz*, de noche.
Arats, cerilla, fósforo. *Izeki*, encender. *Bateko aras-
targia*, por un lado, luz de cerillas. *Besteko krisailu-
-argia*, por otro lado, luz de candil. *Argizai*, cera.
Tximistargi, (neol.), luz eléctrica. *Lanean*, trabajando.
Yazo, acontecer, pasar. *Yazo bear zuena*, lo que
tenía que suceder. *Ertzia*, *itxia*, cerrado. *Betazal*,
párpado. *-pe*, bajo, debajo de. *Indarga*, inerme, sin
fuerzas. *Aul*, débil. *Maskal*, decaído. *Ilotz*, cadáver.
Oe, cama. *Zikin*, sucio. *Zetzan*, yacía.

30. **Basabere ta basegaztien gudua.**—
Bein lauatzak eta egaztiak eskatima izugarí
bat alkañen artean izan zuten. Katamotzak,

otsoak eta azeriak ezin eramán zuten base-gaztiak egiten zietená. Zaldi naiz beor bat zárez ilten zanean, egaztiak, sumo erneagoa baitute, abereak baino lenago eltzen ziran hura yatera. Zatirik gozoenak egaztientzat izaten ziran : begiak belentzat, esteak sayentzat, ańanoentzat mokor ta papańeko aragirik samuńena. Berentzat, abere gosetientzat, ezurá ta azala ta ezer gutxi geiago. «Egazti anaiak, esan zien azeriak batzárezko lagunén ize-nean: etzaitetzte luńera yetxi; luńa gurea dugu, ibili zuek or egurats orétan eta yan itzatzute euli ta erle, zuen arteko mamutz oriek. Yanari au zuen buruok elikatzeko aski ezpada, alkar yan ezazute».

Egaztien artetik, ańanoari baimena eskatuta, kukuadar batera yetxi zan pika, ta buztanari lau aldiz gora eta bêra eraginez, auxe esan zuen : «Abere yaunak : luńa ezta zuena, eguratsa ezta gurea; biak dira Ortzirenak. Lur, egurats, abere ta egazti, izaki guztiok gera Ortzi yaunak eginak. Berak eman dizkigu guri, eguratsean ibilteko, egoak; aitzetan eta soroetan tatez egiteko, atzak. Guk eztiogu inori bein ere galarazi gure artean goietan aizatzea. Zatozte, nai duzuten guztian, egurats-era; igo zaitetzte odeien bizkańera ta gauren

batean ilargiaren adarretan kokatu nai baduzute ere, guregaitan zilegi zaitzute». ¡Ango zalaparta! Zozo ta birigarñoak beren txioketarik zolienak yo zituzten; kukua ta okila pago moztura yoan ziran, iztunari atsegina erakus-tera. Galepeñak beraren poza, pospolin-pospolin yota, erakutsi zuen.

Isilalditxo batean pikak onela yaraitu zion beraren yardun etenari: «Abere yaunak: ilzargau urdin batean, ilargia oso-osorik agertuz, aitzak zilaréz eginak eta odeiak zeru-zatiak diruditen gau eder batean, azeria buru duzute-ela, zoazte Gorbea naiz Ernio naiz Oriko mendi-muñuñera ta, izadi guztia isilik datzartean, eskatu Ortziri zuei ere egoak emateko».

Azeriak igari zuen iriz mintzatzan ari zala pika ta ezarian atzetik pago inausira igo zan, egazti beritsua ortz-artean atzitu nairik. Iztuna, kaña-kaña pañe eginez, aldameneko beste kukuadar batera aldatu zan. Artzak amuñuz betagin zoñotzak erakutsi zituen; atzapañak atera zituen katamotzak; oñoika asi zan basamortuko eñege, leoia; kañagoñia, buztan iletsua bilduñez apal-apal zuela, aritz-adarretik luñera yetxi zan. Arano batek, tximista bezela tantai batetik luñeratuz, azkonaña bizkarretik

artu ta gora ta gora eraman zuen. Lauatz ta egodun, batzarako guztiak, ikuskizun onek añiturik, gora begira yañi ziran. Añanoak baitura lokabe utzita, ¡plaust! erori zan azkonaña eta, aitz bat yota ler eginez, burmuñak eta esteak agerian zituela ilotz gelditu zan.

Ezta esatekoa an erakori zan zañapaña ta abañotsa. Otsoa, zakuñak bezela, zaingaz ari zan, mañumaz artza, leoiak oñoi egiten zuen, sai añeak txistu, tximuak gañasi, basakatuak fffu. Añanoak eta saiak, amuñua begietatik zeritela, atzaparka ari ziran abererik andienakin. Inguru aietako oilar guztiak zoli ta ozen kukuñuku yoten zuten. Oiloak, izurik, atarrietako otak utzita, okuñu-sabaietan ostendu ziran. Ordu-laurden baten buruko, aizeak beredin luma eder sakabanatu zituen; batzar-aria odolez bustia zegoen; eñenka ta mañumaka zebilen artz agoandi bat, itsurik zekusten leoi-rik zangañena; azeri zar batek añano-zati bat agin-artean zeraman. Añats odoltsu artan gizon ziruditen abere ta egazti amuñatu aiek. Oso ta erdi-oso gelditu ziranak gauak andik eraman zituen : batzuk zugatz ta arkaitzeta-
ra, arzuloetara besteak.

Gudu, combate, guerra. *Izugari*, espantoso. *Alkaren artean*, entre sí, mutuamente. *Azeri*, raposo, zorro.

Eraman, sufrir. *Egiten zieten*, lo que les hacían. *Beor*, yegua. *Zárez*, de viejo. *Sumo ernea*, olfato fino. *Baitute*, como tienen. *Abereak baino lenago*, (más) antes que las bestias. *Zati*, pedazo, trozo. *Belentzat*, para los cuervos. *Este*, intestino. *Mokor*, nalga. *Papar*, pechuga. *Samur*, tierno. *Goseti*, hambriento. *Ezer gutxi geiago*, poca cosa más. *Batzar*, junta. *Yetxi*, bajar. *Egurats*, aire. *Zuen buruok*, vuestras personas. *Alkar yan*, comerse uno a otro. *Baimen*, permiso. *Kukuadar*, esforrocino?, rama que se deja de cortar al podar un árbol. *Pika*, urraca. *Buztan*, cola. *Aldi*, vez. *Eragin*, mover. *Buztanari eragin*, menear la cola. *Ortzi*, Dios. Consta *Urzi*, en vez de *Orzi*, *Ortzi*, en el célebre código de Compostela. Creo que es mala transcripción. Las razones se exponen en el Diccionario español-vasco al tratar de «Dios». *Tatez egin*, andar a pata (se dice de las aves). *Galerazo*, impedir. *Goietan*, en las alturas. *Aizatu*, orearse. *Nai duzuten guztian*, siempre que queráis. *Zatozte*, venid. *Adar*, cuerno. *Ilargi*, luna. *Kokatu*, posar. *Guregantikan*, pleonasma de *guregatik*, por nosotros. *Zilegi*, lícito. *Zilegi zaitzute*, os es lícito. *Zalapart*, tumulto. ¡*Ango zalaparta!* ¡Qué tumulto! (el de allí). *Zozo*, mirlo, tordo. *Birigaño*, malviz. *Txioketa*, gorgo. *Zoli*, sonoro. *Yo*, cantar, tocar (instrumentos). *Kuku*, cuclillo. *Okil*, pico. pico carpintero. *Pago*, haya. *Moztua*, desmochado. *Iztun*, orador. *Atsegina erakutsi*, dar la enhorabuena, lit. mostrar placer. *Galeper*, codorniz; lit. perdiz de trigales. *Poz*, regocijo. *Pospolin*, armonía imitativa del repique de la codorniz. Hay quien da este nombre aun a la codorniz misma. *Isilaldi*, rato de silencio. *Yardun*, discurso. *Eten*, romper,

interrumpir. *Ilzar*, plenilunio. *Urdin*, azul. *Agertuz*, apareciendo. *Zilar*, plata. *Zeru*, cielo. *Diruditen gau eder batean*, en una hermosa noche en que parecen. *Buru*, jefe. *Zoazte*, idos. *Muñur*, pico (de montañas). *Izadi* (neol.), naturaleza. *Eskatu*, pedir. *Emateko*, para dar, que os dé. *Igañi*, adivinar, conocer. *Iñi*, burla. *Iñiz*, de burla. *Mintzatu*, hablar. *Ezarian*, disimuladamente. *Inausi*, podar. *Pago inausira*, a la haya podada. *Ortz*, diente. *Atzitu*, coger. *Kaña-kaña*, onomatopeya del graznido de la urraca. *Aldamen*, lado. *Aldatu*, trasladarse. *Amuñu*, rabia. *Betagin*, colmillo. *-tzar*, sufijo de aumentativo. *Atzapar*, garra. *Oñoe*, rugido. *Oñoika*, rugiendo. *Eñege*, rey. *Leoi*, leon. *Iletsu*, peludo. *Apal*, abatido, humilde. *Aritz*, roble. *Adar*, rama. *Tantai* árbol bravío. *Luñeratu*, aterrizar, se. *Azkonar*, tejón. *Ikuskizun*, espectáculo. *Añitu*, asombrar, se. *Baitura*, presa. *Lokabe*, libre, suelto. *Utzi*, dejar. *¡Plaust!*, onomatopeya de la caída de objeto pesado. *Ler egin*, reventar. *Agerian*, al descubierto. *Ezta esatekoa*, no es para dicho. *Erakori*, surgir. *Zañapaña*, tumulto. *Abañots*, alboroto; lit. ruido de ramaje. *Zainga*, ladrido. *Mañuma*, bramido. *Sai añe*, buitre pardo. *Tximu*, mono. *Gañasi*, chillido. *Fffffu*, onomatopeya del bufido. *Zeritela*, manándoles. *Inguuru*, comarca. *Zoli ta ozen*, sonoro y claro. *Kukuñuku*, onomatopeya del canto del gallo. *Sabai*, techo de paja (en las cuadras). *Ostendu*, ocultar, se. *Ordu-laurden*, cuarto de hora. *Buruko*, al cabo. *Aize*, viento. *Beredin*, mucho, s. *Luma*, pluma. *Sakabanatu*, esparcir. *Batzañ-ari*, sala de junta. *Busti*, mojar. *Eñenka*, cojeando. *Agoandi*, de boca grande. *Zekusten*, le veían. *Zangar*, bravo (hombre o animal). *Odol-*

tsu, sangriento. *Ziruditen*, parecían. *Bultzatu*, empujar. *Arkaitz*, roca. *Arzulo*, gruta.

31. **Aizearen yatoña.** - Aintzina zugatzak neguan ere ostoz yantzirik bizi ziran; eta, onegatik edo, etzuten beintzat orain bezen eder ematen. Yupitérek, norbaiten burubidez, udazkenean bilustutzeko agindu zien. Lotsaz, ostoaak goñizka zituztela, guztiak bete zuten agintariaren naia : biluts-bilutsik agertu ziran; eta ¡bai Yupitérek edo beraren itunlariak igarri ere! lengo aldean, udabeñian, yazkin ikusgarriak zituzten; udan, lore ta arnaritan askozaz geiago. Urte batzuk geroago, arnalzugatzak aurren zirala, soinekorik etzuten geienak aldatzen. Leñak, izaiak, arteak, eloñiak, gorostiak, aritzak eta besteren batek, nagusiaren agindua zintzo gordeta, beren soinekoak apal-apalik erazten zituzten. Salatariak aintzina ere baziran, antza. Norbaitek salatu zituen beintzat beste zugatz guztiak Yupitéren aurrean. Lenbizi artu zuen-asére amuratuak iraun babilio, tximista-suz ikaztuko al zituen zugazti, baso ta txaraka guztiak. Odei zuri-gainean agertu zan bein zugazti batean. Beltzuri, kopetilun, zetoñen agintaria. Bera ikusiz, aizea ordurarte sortzaka izanañen, bilduñak batera ta bestera erabili zituen zugatz guztien abar

ta adarák. Ordukoxea izan zan lenengo abarotsa. «¿Zerañen autsi duzute nik emandako legea?» Oro isil-isilik. «Nire legea, yantzi-erantzi legea, zerañen autsi duzuten.—Yauna», erantzun zion aginak: «ni gizonak, beren iskiloak nire unez zitaltzeko, uda ta negu bear naute. Ori bage ikusi nautenean, zema bat egin didate: beste bein bilutsik banakuste, orpo-orpotik ebakiko nautela ta aginik ez tala arean izango, lurpeko anduiren bat izan-ezik». Aginari izua eraietaragino sartu zitzaion ta ordutik onera beti egon oi da ikaraz, eguraldi mana-manatan ere bai.

Gereziak, burua makurtuta, auxe esan zuen: ni, yauna, otz izaten naiz neguan. Gure gerezidian sei ondo ta ogeita zazpi ondozko igazlanean otzez il ziran. Amak, il-aurretxoan, aurretzean ez bilustzeko agindu zigun, abereak ere beti dirala yantziak-eta». Gereziaren ondorik udareak itz egin zuen, udarearen ondorik sagañak, sagañaren ondorik aranak, aranaren ondorik marubiak, urak, intzaurak, gaztainak. Azken bi auek gereziaren apukoa entzunarazi zutenean, legeginak sapuzturik eta iriz esan zieten: jotz izaten zeratela! ¿Zertarako dituzute zuen iru estalki oriek: mintza, azala ta oskola? Vulcano: ozperatxo

auen eruki izan adi. Dar-dart bizi diran gaiso txakiltxoentzat odeiak alkar yoaz aterazak sua : tximista. Mendiak egur makalez orni-tuak baino naiago ditut soil-soilik ikusi. Nire aginduak bete bitez. ¡Ala Yupiter!»

Ezkurdunak eta zugatz antzuak izan ziran gero, beren buruak zuritzera, agertu ziranak. Yupiterék, astirik etzuela esan ta isilaraziz «¿or da eguko yauna, galde egin zuen?— Emen naiz, erantzun zion Eolok.—Gaurgero eroñen ardurapean zugazti, oian, baso ta txarakak aratu ta ikertzea. Zugatz guztiak, onez nai ezpadute, indañez, eroñek bilustuko ditut.—¿Batentzako lan geitxo ezalda? — Orainarte nire legea zintzo bete dutenai, eraiak urin bereziz sendatuko dizkiet. Gainerakoen orí ta ostoak orbel izan bitez.—¿Nola bete al izango dut, bakar onek, zure agindu ori?—Zabal itzak, Eolo, ire mendizulo sakon eskerga oriek eta beretatik sortu ezak aizea. — ¿Aski izango oteda? — Aski ezpada, Neptunok odeietara itsasoko urak goratu ditzala eta arádan yetsi bitez luñera, orí ta ostoak ustelik erori ditezen».

Geroztik baso ta oian ta txaraka ta zugaztietan txistu egiten du Eolok, udazkena irizten dakigunean, eta zugatzen soinekoak

maro-marro luđeratzen dira. Ler, izai, arte, eloři, erinotz, aritz ta gorostiak, Yupiterėk zintzosaritzat emandako urin bereziari esker, eztira bein ere bilusten.

Yatoři, origen. *Aintzina*, antiguamente. *Negu*, invierno. *Osto*, hoja, *Yantzi*, vestirse. *Onegatik edo*, por esto probablemente. *Orain bezen eder eman*, parecer tan bien como ahora. *Burubide*, consejo. *Udazken*, otoño. *Bilustu*, desnudarse. *Agindu*, mandar. *Lotsa*, vergüenza. *Gorizka*, rojizo. *Bete*, llenar, cumplir. *Agintari*, ordenador, *Naia*, la voluntad. *Biluts*, desnudo. ¡*Bai.. igarı ere!*, ¡es admirable que acertasen!... *Lengo aldean*, en comparación de lo anterior. *Udaberı*, primavera. *Yazkin*, vestidura. *Ikusgarı*, vistoso, agradable (a la vista). *Lore*, flor. *Arnari*, fruta. *Askozaz geiago*, incomparablemente más. *Arnalzugatz*, árbol frutal. *Auren*, delantero. *Geienak*, los más. *Aldatu*, mudarse (de ropa). *Ler*, pino, *Izai*, abeto. *Arte*, encina. *Eloři*, espino *Gorosti*, acebo. *Aritz*, roble. *Zintzo*, sincero, fiel. *Nagusi*, superior, jefe. *Agindua*, el mandato. *Gorde*, guardar. *Erantzi*, quitarse ropa. *Erazten zituen*, se los quitaba. *Salatari*, delatador, espía. *Antza*, se conoce, según parece. *Salatu*, delatar. *Aurı*, *aurė*, delante. *Lenbizi*, primero, primeramente. *Aserė amurıtua*, la ira rabiosa. *Tximista*, rayo. *Iraun balio*, si le hubiera durado. *Su*, fuego. *Ikaztu*, reducir a carbón. *Zugazti*, arboleda. *Txaraka*, jaro. *Bein*, una vez. *Beltzuri*, ceño. ceñudo. *Kopetilun*, de frente oscura. *Sortzaka*, sin haber nacido. *Erabili*, traer, mover. *Ordukoxea*, de aquel

mismo instante. *¿Zerañen?*, ¿por qué? *Autsi*, quebrantar, infringir. *Lege*, ley. *Nik emandako legea*, la ley dada por mi. *Oro*, todos. *Yantzi-erantzi-legea*, la ley acerca de vestirse y desnudarse. *Zerañen autsi duzuten*, que por qué habéis infringido. *Agin*, tejo. *Uda*, verano. *Un*, savia. *Zitaldu*, envenenar. *Bear naute*, me necesitan. *Iskilo*, arma. *Zemai*, amenaza. *Egin didate*, me han hecho. *Beste bein*, otra vez. *Banakuste*, si me ven. *Orpo*, talón, base de árbol. *Arean*, de ello, ninguno. Equivale al francés *en*. *Eztet arean* (JE N'EN AI PAS), YO NO TENGO (de ello). *Andui*, cepa, parte subterránea del tronco. *Izan ezik*, a no ser. *Izu*, pavor. *Eñai*, entraña. *Sartu zitzaion*, se le metió. *Egon oi da*, suele estar. *Ikaraz*, temblando. *Gerezi*, cereza. *Makurtu*, inclinar. *Otz izaten naiz*, suelo tener frío. *Gerezidi*, cerezal. *Ondo*, planta. *Ondozko*, planta pequeña. *Eguraldi*, tiempo atmosférico, durante el día; a diferencia de *gauaro*, tiempo atmosférico, durante la noche. *Mana*, calmoso, tranquilo. *Eguraldi mana manatan*, en tiempo muy calmoso. *Igazlanean*, (en) el año antepasado. *Il-auñetxoan*, poco antes de morir. *Auñerantzean*, en adelante. *Ondorik*, a continuación. *Udare*, pera, peral. *Sagar*, manzana, o. *Aran*, ciruela, o. *Mañubi*, fresa. *Urñ*, avellano. *Intzaur*, nuez, nogal. *Gaztaina*, castaña, o. La palabra *ondo*, «planta» se usa mucho como sufijo para distinguir a un árbol de su fruta. *udareondo*, *sagarondo*..., etc. *Azken*, último. *Apuko*, excusa. *Legegin*, legislador. *Sapuztu*, amorrarse. *Estalki*, cubierta. *Mintz*, membrana. *Azal*, corteza. *Oskol*, cáscara. *Ozpera*, friolento. *Eñuki izan*, tener compasión. *Dar dart*, temblando (onomatopeya). *Txakil*, enclenque. *Ornit*, proveer. *Ornit*uak,

provistos. *Soil*, pelado. *Ezkur*, bellota. *Ezkurdun*, (árboles) de bellota. *Antzu*, estéril. *Burua zuritu*, sincerarse. *Asti*, tiempo (para hacer algo), ocio. *Isilararazi*, hacer callar. *Egu*, atmósfera. *Gaurgero*, de hoy más. de hoy en adelante. *Eroñen ardurapean*, bajo tu cuidado. *Oian*, bosque. *Aratu*, escudriñar. *Ikertu*, examinar. *Onez*, a buenas. *Indañez*, a la fuerza. *Eroñek*, tú mismo (activo). *Geitxo*, sobrado, lit. muchito. *¿Ezalda?*, ¿no es acaso? *Urin*, zumo. *Sendatu*, fortalecer. *Gainerakoan*, por lo demás, en adelante. *Oñi*, hoja mayor. *Orbel*, hojarasca. hoja caída. *Bakar onek*, yo (que soy) único. *Mendizulo*, cueva. *Sakon*, profundo. *Eskerga*, enorme. *Goratu*, elevar. *Itsaso*, mar. *Añadan*, a chorros. *Yetxi*, bajar. *Ustel*, podrido. *Erori*, caerse. *Geroztik*, posteriormente. *Txistu egin*, silbar. *Iritzi*, llegar. *Iritzi dakigunean*, cuando se nos llegue. *Maro-maró*, suavemente. *Erinotz*, laurel. *Zintzosari*, premio de fidelidad. *Esker*, gracias. *Bein ere*, nunca.

32. EĒRIMINA.—NOSTALGIA

I

Dardaia bezen bizkor ta lerdan
egaz abilen usoa,
Lea-ondoko etxeño baten
egazperagino oa.
Urú ta urú sar adi bertan,
bildurá aizetan utzirik:
inortxok ere ezfik ikusten
an pisti erpe-zorótzik.

Paloma, que rauda y recta como la flecha vas volando, ve bajo el tejado de una casita de junto al Lea (1). Entra allí arrullando y dejando al viento el miedo: nadie ve allí alimaña de garras afiladas.

II

¿Eztakusk dena zein garbi, txukun,
egazpe ortan dagoen?
Bete-beteen esan dezakek :
euskaldun bat bizi da emen.
Atalondoan kukuńukuka
ari dan oilar putz ori

(1) Ría de Lekeitio.

auzo-munetan dabil edatzen
toki ortako jo ze zori!

¿No ves cuán limpio, aseado, está todo en esa morada? a boca llena puedes decir: «Aquí vive un vasco». Ese orgulloso gallo, que entona su *kukuñuku* junto al zaguán, esparce por los ribazos confinantes la felicidad que reina en ese hogar.

III

Subaztereko eguñarteko
pipizulodun seaskak
amets gozoak, nire aur-ametsak,
oso gorderik zeauzkak.
¿Igon oteda batxo munduan
ametsak baino gorago?
Or uraia bezen be-bean
dituen bat emen dago.

La cuna que, agujereada por la polilla, está en la leñera del hogar, tiene atesorados dulces sueños, mis sueños de la infancia. ¿Habrá subido en el mundo alguien más alto que los sueños? He aquí a uno que tiene los suyos tan profundos como la piedra de los arroyos.

IV

Galde uda naiz negu-usainez
Goibe dabilzen lertxunai,
seaskeritik zein goi ta uruti

bizi naizen ni. ¿Bizi? ¡Ai!
Aizeak ere nekatzen dituk
ortik onera urbiltzen,
ta inork etzekik, neronez landan,
zein asnasbear nagoen.

Preguntad a las grullas, que al barrunto del verano e invierno emigran, cuán lejos y cuán arriba vivo yo del pueblo de mi cuna. ¿Vivo? ¡ay! Aun los vientos se fatigan de acercarse de ahí acá, y nadie, excepto yo, sabe cuán falto de aliento estoy.

V

Orko etxandere uré-biozdun
gibelmin-bage orixe
dut lur-gaineko ondasun bakār,
ni maite nauen amaxe.
Maite diat nik, o egazti isil,
ik or dakuskan txokoa,
txoko ori baino txit maiteago
or bizi dan gurasoa.

Esa ama de casa de corazón de oro, sin hiel, es mi único bien sobre la tierra, es mi madre que me ama. Yo amo, ¡oh, ave silenciosa!, el rinconcito que tú ves ahí, y más aún que ese rinconcito a mi madre que ahí vive.

VI

«Uría urátxua» entzutorduan
ta artoa ikusi ugari,
egozuri, laztantxo, i ere
oilasko-artean sar adi.
¡O zein gozo ta zein mamintsu dan
amak emandako artoa!
Agokoaren oroipen utsa
arimaraino diyoa.

Al oír «urra-urra» y ver el maíz en abundancia, (¡oh! tú, ave) de alas blancas, amadita mía, agrúpate entre los pollos. ¡Oh, cuán dulce y sustancioso es el maíz propinado por la madre! Sólo el recuerdo de su sabor penetra el alma.

VII

Aur nintzanean nuen bezela,
gabero lotarakoan
oraino ere amets gozotan
ama dut nere gogoan.

Aur nintzanean zuen bezela,
seaskondoan gabero,
ama maiteak oiu egin bezait
«u-au-atxoa lo ta lo».

Como solía yo cuando era niño, cada noche al acostarme aun ahora sueño dulcemente con mi madre. Como solía ella en mi niñez, cante junto a mi cuna mi madre amada todas las noches «niñito mío: duerme, duerme».

Kolonian, 1908 ko garagañilean.

En Colonia, Junio de 1908.

33. ILARGIA.—LA LUNA

*Nere adiskide, orduko bidaide.
P. Broussain ta A. Constantino-i.*

A mis amigos, los coviandantes de entonces, P. Broussain y A. Constantin.

I

Athañatzeko Paradisutik
odei-seaskara urbil
bi nere eñitar bidaiderekin
ninoala orain bi il,
Añemendiren funtur-gainetik
agertu zinidan isil :
espuru sagar bat bezen txuri,
ziza bezela biribil.

Yendo del Paraíso de Tardets junto a la cuna de las nubes con dos compatriotas coviandantes, hace dos meses, te me apareciste silenciosa (¡oh! Luna) sobre la cumbre de Auñemendi: tan blanca como la manzana asperiega, redonda como el hongo.

II

¡Hura zan aráts-ta gau-giroa
oroimengari benetan!
zure irudia gekusenean
Onize-ibaiko uretan,
arain lotiak, esnatu eta
zilarturik aparétan,
zebilzenean zure masailan
musu artu-emanetan.

Memorable fué, ciertamente, el tempero de aquel atardecer, de aquella noche, en que veíamos tu imagen en las aguas del río Onize, cuando peces dormilones, despiertos y argentados en la espuma, se movían en tus carrillos dando y recibiendo ósculos.

III

Nere lagunak txoraturikan
biak ziran oiuz ari :
Txoriñoa ta Urzo txuria,
Agota ta Oi laborari.
Ibaiondoko arkaitz-barutik

norbait zan atzerakari.

¿Lamina otezan, sorgina otezan
zerantzuna gure otsari?

Mis compañeros, enajenados de gozo, empezaron a cantar *Txoriñoa* y *Urzo txuria*, *Agota* y *Oi laborari*. Alguien replicaba por dentro de la roca de junto al río. ¿Era lamia, era bruja quien respondía a nuestra algazara?

IV

«¿Nola gau itzal goibel antzuak
erne dezake argia?

¿Eguna gautu-orduan nola
gaua eguntzen ari da?»

Galdetzen zuen bidezti batak
itxadonik gure epaia.

Nola liteken argi iletik
zu sortzea, ilargia.

«¿Cómo noche oscura, triste, estéril, puede engendrar la luz? ¿Cómo, al hacerse noche el día, se hace día la noche?» Preguntaba un viajero y esperaba nuestra decisión. Cómo de una luz muerta puedes tú nacer, luz de muertos.

V

Aita nuen nik ereslaria
ama dut argizalea.

¿Ezotedit biotzak nun gorde

(gordailutxo bat txumea)
ereslarien ostargi-txinar,
argidun ulerpidea :
zuri gaur oiuz zorarazteko
ta antzarazteko bidea?

Poeta fué mi padre, mi madre ama la luz. ¿No tendrá acaso mi corazon dónde guardar (humilde tesoro) chispas de luz celeste de los poetas y clara comprensión, para enajenarte esta noche con mis cantos y hacerte olvidar tu camino?

VI

Zure argitan baratze oianak,
soroak zeru diruri,
laborarien etxol apalak
yauregi txukun ta txuri.
Zure begiak, biřeginařen
giza ta eme maiz beltzuri,
eztigu ikusten musu goibelik
ta erio-yantzirik guri.

A tu luz los bosques parecen huertos, los campos semejan el cielo, humildes cabañas de rústicos (parecen) palacios pulcros y blancos. Tus ojos, aunque retraten ceñudos a hombres y mujeres, ni rostro triste ni vestiduras de muerte ven en nosotros.

VII

Su epelezko bil oñen auñez
odeiak aiena bediz,
lorik datzazten eñitar auek
esna ditezten zu ikusiz,
argi oñetan yakin dezaten
nor diran beron yatoñiz
ta aitor dezaten biotz bakañez :
«bat izateko yaio naiz».

En presencia de ti, globo de fuego tibio, desapare-
can las nubes, para que estos compatriotas que yacen
dormidos despierten al verte y a esa luz sepan quién
son por su origen y confiesen con único corazón: «he
nacido para ser uno».

VIII

¿Ezalzinuzten, ilargi eder,
lengo euskaldunak loisintzen
ta orbelezko oge biguñetatik
ezalziran ateratzen,
iñadaz, oiuz zure izen ona
eki-gainean goratzen;
sakan ta egien eñai isilak
oyartzun gozoz ozentzen?

Por ventura, hermosa luna, no te mimaban los antiguos vascos y no salían de sus blandas camas de hojarasca a levantar tu nombre, en sus bailes y en sus cantos, sobre el del sol? ¿No tornaban sonoras con dulces ecos las silenciosas entrañas de barrancos y colinas?

IX

¿Xuberotañak egodun zanko
zaintsuak soñik aldauzka?
Gipuzko seme ezpain-biguña
¿nola eztantzugu oyuka?
Kantaita-altxordun napar mazalak
atera bediz élika,
euskaldun zañen eresi txauez
al zezakezten elika.

¿Tiene acaso el Zuberoano entorpecidas sus nervudas aladas piernas? ¿Cómo al hijo de Guipuzkoa, de blandos labios, no oímos cantar? Salgan agrupados los nobles nabarros, tesoreros de canciones, para que puedan alimentarte de puras poesías de los vascos antiguos.

X

Ezkontzegunez emaztegaia
bezen apain eta lerdén
argi gautaña dabilenean

itzalik itzal aráitzen,
zaude, eguzki, lozko lerdetan
nagiz gaua luzatutzen,
zaude ta gogoz iretsi itzatzu
suzko estai oiek bañenen.

Cuando la luz nocturna, elegante y erguida como esposa en el día de sus bodas, se mueve de sombra en sombra para abrillantárlas, quédate, sol, babeando de sueño, perezoso, alargando la noche, quédate y devora en tus entrañas esos tus rayos de fuego.

XI

Edeña zera, maite zaitugu,
gereka ta aldakor argia;
eresi beñaz gozaten duzu
maitalarien bizia.
Zu bezen eder, zu bezen gozo,
zu bezen maitagaña
dugu euskaldun banakatuok
gure ama Euskalería.

Eres hermosa, te amamos, inquieta y tornadiza luz; de tiernas poesías endulzas la vida de los que se aman. Tan hermosa como tú, tan dulce y tan amable nos es a los dispersos vascos nuestra madre Euskalería.

XII

Mendi auetan bein ere eztuzu
entzun euskalitza baizik.

Erdal ubelde aře-indařez

bazekus inoiz itorik

¡O gure asaben lagun zar ori!

zoaz ospurura emendik,

Izarginaren bizitokia

yaři dezazun apainik.

En estas montañas jamás oíste otra voz que la vasca. Si alguna vez la vieras ahogada por la fuerza de pardo torrente de extraña lengua ¡oh! tú, vieja compañera de nuestros antepasados, sube de aquí al cielo empíreo y adorna con tu esplendor la vivienda del Hacedor de las estrellas.

1898 ko Urilean.

Octubre de 1898.

Notas al poema ILARGIA. - 1.^a Fué escrito con motivo de una expedición que hizo su autor con dos amigos desde el paradisíaco Tardets (Atharratze) al villorrio más elevado de Zuberoa, Garazi (Santa Engracia), que figura en la primera estrofa como «cuna de las nubes».

2.^a *Auñemendi* no es el Pirineo, como viene diciéndose de años a esta parte. Es un pico muy elevado llamado por los franceses «Pic d' Any». Su nombre vasco significa: «montaña de los cabritos». La equivocación partió de mí. Cuando mi caro amigo el excelente escritor don Domingo de Aguirre presentó el año 1899 su novela vasca *Riktrudis* a un concurso de EUSKALZALE, cambié, de acuerdo con el premiado autor, su nombre en *Auñemendiko lorea*, traduciéndole en «Flor del Pirineo» por no decir «Flor de la montaña de los cabritos».

3.^a Son canciones populares las cuatro que figuran en la tercera estrofa.

4.^a La traducción de *Ilargia* en «Luz de muertos» es más poética que exacta. *Ilargia* es sencillamente «La luz de Luna», Luna es *Il*.

De las piezas que figuran en esta segunda parte unas son traducidas, otras originales. Son del autor de este Prontuario los números del 1 al 11, del 13 al 17, el 19 y 20 y del 30 al 33. Los números 18, 21 y 28 los ha traducido del alemán; del inglés los números del 24 al 27; del francés el 12 (retocado) y 22 siendo el número 23 traducción del español.

ADVERTENCIAS FINALES

que debieron ser hechas en los umbrales de
la obrita

I. Bueno será, tal vez punto menos que indispensable, que, quien se valiere de este Prontuario para enseñar la lengua, procure que los discípulos traduzcan cada leccioncita de la primera parte, como también cada anécdota de la segunda, primero del vascuence al castellano, luego del castellano al vascuence. Hágales después, en esta lengua, diferentes preguntas acerca de cada frase, recalcando alternativamente sus circunstancias o complementos; y oblíguelos a dar sus respuestas también en vascuence. Sirva de ejemplo el tema o lección XIX BELARKIAK de la página 27. Po-

drán hacerse, acerca de la primera frase, las preguntas siguientes, enfatizando adrede la palabra inicial. 1.^a *NOIZARTEKO ikaskizunetan aitatu ditugu gizonarenezako izakiak?* Y el discípulo responderá: *ORAINARTEKO ikaskizunetan aitatu ditugu gizonarentzako izakiak* (1).

2.^a *NORENTZAKO izakiak aitatu ditugu orainarteko ikaskizunetan?* Respuesta del discípulo : *GIZONARENTZAKO izakiak aitatu ditugu orainarteko ikaskizunetan.*

3.^a *ZERTZUK aitatu ditugu orainarteko ikaskizunetan?* Respuesta : *IZAKIAK aitatu ditatu ditugu, etc., etc.*

4.^a *¿ZER egin dugu orainarteko ikaskizunetan?* *AITATU gizonarentzako izakiak.*

Acerca de la segunda frase cabrán esias otras preguntas :

1.^a *¿ZEINBAT izaten dira beraren burua elikatzeko?* Respuesta : *BATZUEK izaten dira beraren burua elikatzeko*

2.^a *¿NOREN burua elikatzeko izaten dira batzuek?* Respuesta : *BERAREN burua, etc.*

3.^a *ZER EGITEKO izaten dira belarki ba-*

(1) No se satisfaga el profesor con que el alumno responda *orainartekoetan* o bien *ORAINARTEKO ikaskizunetan*, sino que ha de hacer que cada vez diga toda la frase. Así se le acostumbrará el oído, que es el principal vehículo de aprendizaje de una lengua.

tzuek? Respuesta : *Beraren burua* ELIKATZEKO *izaten*, etc.

Este método es también aplicable a las anécdotas de la segunda parte.

II. No aguarde el profesor, para que el discípulo empiece el estudio del compendio teórico, a que sepa las dos primeras partes. La teoría debe ser expuesta juntamente con la práctica, oportuna y brevemente. Desde la primera semana ha de dar a conocer algo de la numeración y lo más indispensable de los artículos, luego los pronombres. Estudiéense después algunas flexiones verbales de indicativo, primero del auxiliar pasivo y luego las del activo, con la formación del pretérito, futuro e ideas habituales, sin descuidar la exposición de los sufijos a medida que surjan en el texto práctico. Las explicaciones sean cortas, claras y apoyadas en frases formadas con vocablos conocidos, por lo menos en su mayoría, del discípulo.

Tenga y haga presente el profesor que si al estudio de esta lengua consagrara el alumno las horas diarias que hay que dedicar para aprender, siquiera medianamente, cualquiera lengua extranjera, se desvanecería el coco de la dificultad del vascuence.

Es muy recomendable que el discípulo aprenda de memoria muchas frases de estos temas y anécdotas; cuantas más, mejor. Asimismo pudieran suministrársele, como alimento de su memoria, proverbios cortos y sustanciosos. El autor de estas líneas disponíase a incluir en esta segunda parte un buen número de ellos; pero sabedor de que su buen amigo don Julio de Urquijo lleva muy adelantada su hermosa obra de Paremiología o Refranero vasco, ha preferido que el profesor escoja de esa riquísima colección los proverbios que más le agradaren (1).

III. El solo hecho de hablar una lengua, a nadie autoriza a enseñarla; como a nadie, que no haya perdido el seso, le autoriza a juzgar si la redacción o traducción, pongamos por ejemplo, de un catecismo, está bien o mal hecha. Lo primero que debe hacer cualquiera que se ponga a enseñar una lengua es conocerla a fondo. A este fin van encaminadas las páginas de la tercera parte de esta obrita.

(1) Poco después de salir a luz esta segunda edición empezará su autor la publicación de *Euskalefiaren yakingaiak* (Literatura popular de Euskalerría). En su tercer tomo podrá ver el lector más de 800 proverbios no recogidos en libro alguno de Paremiología.



TERCERA PARTE

AUTUAK ETA IRÍANTZERKITXO BAT

(DIALOGOS Y UNA PEQUEÑA COMEDIA)

I.—Ardantegi batean.

¿Inor oteda atarian?

—Baietz esango nuke, nik ere zerbait entzun dut-eta.

—Yetxi, neskame, nor dan ikustera.

—¿Au alda baseñi onetako ardantegia?

—Bai, yauna; auxe da. Betor bañura.

¿Ezer artu nai aldu?

—Egañi naiz, gazte; gose ere bai. Bazkaria gertatzen didazun bitartean, ur-ardoa artuko nuke.

—Eseri bedi. ¿Nai aldu zakuña okuilura nik eramatea?

—¿Zertarako? Alkañekin gosetu gera ta alkañekin bazkaldu bear dugu zakuñak eta biok.

—Yañi or ¡otoi! etxeko andreari ots egin dezaiodan.

—Eizari yauna, añatsalde on Yainkoak diola.

—Bai zuri ere, etxeko andre.

—¿Bi lagunentzako bazkaria nai omendu?

—Aparia izan ta ere, berdin dugu; ona, ugaria ta laster egina bada.

—Añautzak baditugu, urdai-azpikoa ere bai, lata bat edo bestetxo... Kontxesi: yoan adi iturñira, suil bete ur beñi ekartzera.

—¿Beñi-paperik ezalduzu?

—Apaizak artzen du egunoro. Oraingo irakuñi izango du. Kontxesi: bidenabar apaizaren ilobari beñi-papera, eizari yaun batentzat, emateko. ¡Ots! Pizkor ibili.

—¿Kontxesi baino besterik ezalduzu?

—Iru aur ditut: irurak eskolan dira. Senaña goizean goiz yaikita Ordiziara yoana da.

—¡Ordiziara! ¿Uruti-samar ezalda? ¿Zeregin aundiren bat edo...?

—Azokeguna baita, zereginik ezpadute ere, emengo gizonik geienak asteazkenetan ara yetxi oi dira.

—¿Soroko lanak eginak aldauzkate?

—Beste etxêtako beñi eztakit. Guk eztugu ez aloñik ez belardirik; baratze txikitxo bat, neronen ardurapekoa.

—¿Senañak nolako lanak egiten dizkitzu?

—Arotza da ta gainera sakristaua ta kantaria ere gutxi bezelakoa. Adi beza, yauna: gero emen eztugu ogi beñi, eguneko ogi bigun txuririk. Astero bi aldiz erazekiten dugu la-bea: astelenez ta ostegunez. Ogi ona, ori bai, badugu: eñirin utsezkoa, nasterik bagea.

—Kontxesi gaisoa asnaska dator.

—Pizkor ibilteko esan diot eta...

—¿Apaiza etxean alda, Kontxesi?

—Bai, yauna; ta bera ere laxter agertuko dala esan du. Tori beñi-papera.

—¿Nolako euskera dun ori? Yaun bati «ar beza» esan bear zaio, tori ta mori gure arte-rako utzita. ¡Ots! eizari yauna: añautzak mai-ean dira ta urbildu bite.

—¿Ardoa nolakoa nai du? Zuria ala beltza?

—Beltza naiago dut, utsik edateko. Yaten asi baino lenago, ur beñi ori ardo zuriz nasirik eta gozaturik edango nuke.

—Berealaxe ori ere. ¿Zakuña esnatuko al-dugu?

—Txali-otsak eta urdaiazpiko -usainak es-natuko dute ori, lena bada.¿ Eztut nik esan?

Capitan: ator onera, gaiso ori. Ar zak ogi-zati au, baina erortzen utzi gabe: orelaxe, grausk eta urdailera. Tori beste bat ere. ¿Ezalaiz ogi-gose?

—*Yauna:* dakustanez, urietako zakur bazuek baseñietako aurak baino oparoago ta taukera geiagotan bizi dira.

—*Auek* ere agodunak dira-ta...

—*¡Añautzaz* zakurak elikatu! Entzun ere eztut egin.

Atari, portal, zaguán. *Neskame,* criada. *Bazkari,* comida. *Okuilu,* cuadra. ¿*Zertarako?*, ¿para qué? *Alkarekin,* juntos, uno con otro. *¡Otoi!*, le ruego. *Añantza,* pesca. *Urdaiaspiko,* jamón. *Suil,* herrada. *Beñi-paper,* periódico (papel de noticias). *Irakuri,* leer. *Bidenabar,* de paso, a medio camino. *Iloba,* sobrino. *Eizari,* cazador. *Pizkor,* ligero, ágil. *Aur,* niño. *Escola,* escuela. *Senar,* marido. *Ordizia,* Villafranca de Oria. *Azokegun,* día de mercado. *Alor,* campo destinado a la siembra. *Belardi,* prado. *Baratz,* huerto. *Erazeki,* encender. *Labe,* horno. *Eñirin (eñi-irin),* harina del pueblo. *Tori,* tome, tenga. *Grausk,* voz onomatopéyica que denota el acto de morder. *Urdail,* estómago. *Oparo,* en abundancia. *Aukera,* comodidad. *Añantza,* rebuzno. *Elikatu,* alimentar, mantener.

II.—Eizari-arteon.

¡Kaisio, apaiz yauna!

—¿Onontzaldi? Ongi etoñi. ¿Izan alzera egunarte beste inoiz Ataunen?

—Egun lenengo aldiz. Lagun egin nai badit...

—Eskeñik asko ta on dagizula.

—Yañi or nunbait.

—Orainarte ere eserita egon gera ta naiago dut zutik egon. ¿Nundik zatoz, geiegi yakitea ezpada?

—¿Oñati bândaki nun dagoen?

—Nun dagoen bai, ikusi ere egin dut Aloña-tontoretik, gu ere eizan ibiltzen gera-ta.

—¡Eizan! ¿Erbitan ala epeñetan?

—Ni gutxitan ateratzen naiz. Udazkenean pagausoak agertzen diranean, bunp ortik eta bunp emendik ibiltzen gera.

—¿Lagun asko biltzen aldira oñetarako? Ni ere pozik yoango nintzake.

—Iru bat asteren buruan asiko dira usoak etorten. Oñetarako toki ona Lañe deritzaion mendi-ingurua: oberik ez.

—Izenik ere ez tut entzun.

—Napañoa ta Gipuzkoaren muga-mugan,

Areso ta Orexaren bitartean. Ikuskizun eder-agorik gutxi Euskalerian.

—¿Erbitara ezaldira ateratzen?

—Elurik eztan urteurenean ilten izan ditugu banaka batzuek.

—¿Elurak otzez garbitzen alditu?

—Elurak berak ez, ezta kaskarabar ta txingoak ere; baina elurtetan baseitar malmutzuek ¡pin-pan! eztigute bat bizirik uzten.

—¿Ezalda eizazainik?

—¡Eizazaina! Gizazaina bear genuke. ¿Ezalda egia, Madalen? ¿Paře? Yauna: izenik ere eztaikit, baina...

—Olalde zure mendeko.

—Olalde: Oñati toki zabala da ta auzotegiak ugari ditu. Izan ezetz bat, Aloña burutik asita Arasateko (Mondragoeko) mugaraino, gure sakristauak adina erbi igaz il dituenik. ¿Paře, etxeko andre, paře?

—¿Negar egingo dugu ařen? Berori astenda ta badaki, yauna, itsaskoña da pařea.

—Esan egia, Madalen, egiak zeruratu bear gaitu-ta. ¿Zeinbat erbi il zituen igazko neguan zure senaak, gutxi gora-bêra zeinbat, zeinbatxe?

—¿Eztaki beroerek erbiak eluregunetan egiten dizkigun kalteak? Soroetan ezteute yate-



korik, belardiak eluréz estaliak izaten dira, kañagoñiak, bezela pagoetara eztakite igotenta goseak zirikatuta baratzetara etorten dira. Aza- ta poñu-landararik bat eztute osorikuzten. Eta gero Lorentzok...

—¡Gero! Gero baino ezpalitz... Olalde: zakuñik ere eztu bear Madalenen senañak, erbianun dabilen yakiteko.

—Egi-egia, eizari yauna: or goietan bunpada bada ere, Lorentzok il du; ilargi zuri edeñetan Altzolako baseñitañak dabilzenean, San Gregorio-ko sakristauak eñua. Bera emen balego...

—Berari esango nioke. Oñatiko eremuetan eztala esan dut; ezta Goieñi guztian ere ezta nire sakristaua baino erbi-iltan trebeagorik; eta gero yo kontuak ¿eta zer? Ateratzen gera udazkenean, zakuña auñean dugula ta ez oinañtsik ez usainik: zakuñari egikizuna antzi ta gu usotan asi bear. Evangelioa da au, Olalde.

Kaisio, fórmula de saludo familiar. *¿Onontzaldi?*, ¿Usted por aquí?, literalmente turno de hacia acá. *Egunarte*, hasta hoy. *Tontoñ*, prominencia, cumbre. *Erbi*, liebre. *Pagauso*, paloma torcaz. *Bunp*, onomatopeya del tiro: *bunpada*, tiro. *Muga*, límite, linde. *Ikuskizun*, objeto de visión, espectáculo. *Kaskarabar*, granizo. *Malmutz*, gordinflón, taimado. *Pin-pan*, ono-

matopeya del tiro. *Eizazaina*, montero. *Gizazaina*, policía. *Pañe*, risa. *Auzotegi*, barrio. *Añen*, pues. *Itsaskor*, contagioso. *¿Zeinbatxe?*, ¿cuántos, poco más o menos? *Berori*, vos. *Kalte*, daño. *Kañagorri*, ardilla. *Zirikatu*, azucar. *Aza*, berza. *Poñu*, puerro. *Landare*, planta. *Eñu*, culpa. *Eremu*, jurisdicción, superficie. *Oinatz*, huella del pie. *Usain*, olor. *Egikizun*, quehacer, oficio. *Antzi*, olvidarse.

III.—Bizargin bat.

Patxika: yoan bizargintzara ta esan nagusia bera etorri ezin bada, datoñela moñoia lenbailen.

—Yauna: tirin-otsa dantzut.

—¿Bera oteda?

—*Deo gratias* (1).

—Eztago zulakorik ez uri onetan ez bestetan.

—Yauna: barka; badaki, gure arazo onetan...

—Zazpi ta erdi-erdietan etorteko ta baietz; beñiz ere Patxiko bidali ta «berealaxe noala» ta zortzirak yota ere zu ageri ez.

—Urangoan, yauna, Patxika datoñeneko,

(1) Onelaxe sartzen zan aitari bizaña egitera, nire aurzaroan, uri artako bizargina.

naiz ta aurpegi-erdia egokiari garbirik utzi, tipi-tapa bizargintzatik aterako naiz.

—Egun aste bete ta bi ta iru, berdin berdin esan zenuen.

—Itz ematen diot, yauna.

—Orduan ere itz ori eman zenidan; baina zuk antzi edo zeroŕek dakizu.

—Sei ta erdietatik zeuden bi begira ta eskupeko andirik emanenzaŕen, gizona gizon da ta...

—Eztut ezagutu aitzakia samuŕagodun gizonik.

—Beroŕen itza atzeratuta, labanak ederki dakazkit.

—Bein edo bein.

—Akats txiki bat zuen batak. Hura kendu al izateko inik isuri dut izerdia!

—¿Zoŕotz dakazkizu gero?

—Gogamena ebakiko lukete. Eguraldi edeŕa ¿e?

—Edeŕegia. Euria balitz, obe.

—Alkatea bizargintzan izan zan bart ta orixe esan zuen: euri-egaŕi dirala luŕak.

—Aski da pitsik eta apaŕik.

—Bizargin trebeak apaŕa ugari eman bear du. Nik lenengo Azpeitin, gero Donostian bizargingoa ikasi nuen.

- ¿Asi gera? ¿Badakizu norako nagoen?
- Elizarako naski.
- Pizkor ibilteko esan nai dut.
- ¿Minik ematen du?
- Labanak ez, orainarte beintzat.
- Izerdia lodi erortean, atseginezkoa izaten da lana, neketsua izanañen.
- ¿Suduñetik eldu bage ezin bizaña egin duzue?
- Ni ikasten egon nintzan bizargintzan...
- Beti zeuden beriketean ¿ezalda egia? Badakizu nora yoan bear dudan?
- Galdetzen duenari erantzutea ¿ogen (pekatu) oteda, yauna? Gure nagusiak esaten zigun...
- Suldaña dut ortxe ta poliki ibili.
- Bai, yauna: gure nagusiak, Bergaraña zan bera; gure nagusiak...
- Zuen nagusiak ez, nik, neronek dudala suldaña ¡txut! bai egoari andia ere. ¿Zer dalata egon bear duzue beti beriketean bizarginok?
- Egon puska batean ¡otoi! bigañen pitsaldia emanarte. Egikizunak egiten du. ¿Ezaldu ikusi motzailerik mandoari ilea mozten?
- Aien egokiak, guk bezela, eztiote erantzungo, nik uste.

—Oiuz ari izaten dira motzaileak. Guraizen triski-traska ta labanaren ziri-zara auek mingainean kili egiten digute ta guk itz egin bear.

—Beti bezela egun ere odola darit.

—Ona, yauna, gertatzen zaiguna. Suldañak, sortzeko, ostiral-gaberarte begira egoten dira ta gero... baina ezta ezer, ortik ezta berori ilko.

—Ekañi ispilu ori. ¿Eta kokospeko bizartxo auek? ¿Edergaritzat utzi aldizkidazu?

—Pizkor ibiltea nai du-ta.

—Eraman labanok. Ez gero inori oriezaz bizaña egin.

—¡Esatea ere! Beritsu-samaña, edozein bizargin bezela, banaiz; baina zintzotasunean...

—Zazpi ta erdietan etoriko zera aurerantzean.

—Baita : ez lenago ez geroago : zazpi ta erdi-erdietan.

—Agur, yauna. Izan ongi.

Bizargin, barbero. *Nagusi*, amo. *Moñoi*, criado. *Len-bai-len*, cuanto antes. *Tirín*, onomatopeya del acto de tocar el timbre. *Ots*, ruido. *Arazo*, ocupación. *Aurzaro*, infancia, niñez. *Egokiak*, los familiares, los clientes. *Tipi-tapa*, onomatopeya del ruido que se hace al andar. *Eskupeko*, propina. *Aitzaki*, excusa, pretexto. *Akats*, tajo, mella. *Isuri*, derramar. *Izerdi*, sudor. *Gogamen*, pensamiento. *Aski*, bastante. *Pits*,

espuma duradera. *Apar*, espuma fresca. *Lodi*, espeso, en abundancia. *Txut*, interjección de dolor. *Egoari*, cachaza. *Pitsaldi*, mano de jabón. *Motzaile*, trasquilador. *Triski-traska*, onomatopeya del ruido que producen las tijeras en el acto de cortar. *Ziri-zara*, onomatopeya del ruido que produce la navaja de afeitar. *Kili*, cosquillas. *Suldar*, granillo de la piel. *Ispilu*, espejo. *Kokots*, barba, barbadilla. *Edergari*, adorno.

IV.—Sendamena.

Ama: berori gaizki dago ta atxeteñari (sendatzaileari) ots egin bear diogu.

—Bart esan nuena nik orain ere: Mikelari bai, besteri ez.

—Beroñek il nai badu, nik eztut nai umezurtz izan. Banoa ni Ardantza jaunari dei egitera.

.
Egun on, Kontze. ¿Bizi zera?

—¿Etoñi zera, Mikela, Yainkoaren alaba, etoñi zera? Ertsizazu ate ori, besterik incr sar eztakigun.

—Aspaldion zu ikusi bage «¿minez oteda?» galdetzen nuen eta inortxok ere etzidan argitasunik ematen. ¿Zer duzu?

—Nik ezur guztiak minduta. Geldi banago, gogaitu egiten naiz; ezker naiz eskubira igitu nai dudanean, antziaz: au ezta bizi izatea.

—¿Noiztik zera eri?

—Artazuritzetik onerakoan. Orduantxe otzak batetik bestera igaro ninduen ta geroztik egun bat eztut izan onik.

—¿Berorik edo bâlduzu?

—Erai guztiak eretzen dauzkat.

—Orduan bañuko gaitza duzu. Begiratu niri aurpegi-aurpegira. Orelaxe. Begiratu orain goiburura, begiok bañuko aldetik ongi ikusi ditzadan. Ederki. ¿Yateko gogorik?

—Ilteko beste.

—¿Lorik egiten duzu, lorik?

—Aste osoa igaro zait lo bage.

—¿Izan duzu inoiz agoeririk?

—Ortzetakoa ta aginetakoa, besterik ez.

—¿Izan duzu lenago bañuko gaitzik?

—Nik aurminak ama izatorduan, besterik ez, esatekorik beintzat.

—¿Ito-beańik edo?

—Egun auetan bai ta gainera lokiak gabiz yota bezela minduak ditut.

—Ori zer dan badakit. ¿Biotzeńerik?

—Ori ere maiz, igandetik onera.

—Biotzeńea biotzetik dator. Odola irakiten bezela yartzen da ta gero biotzetik agorako bidea sutan bezelaxe asten zaigu.

—Egia, Mikela, egia.

—Linaziaz ta neronek dakazkidan belar batzuez txaplata bat egin dezala alabak.

—¡Ai, Mikela! Zuk eztakizu hura nor dan. Eztu egingo. Zerorék egin bear izango duzu.

—¡Ixo! Oinotsak dantzuzkit, mailadian gora norbait dator. ¿Nor oteda? Galduak gera. Zaldi bat dago atalondoan. Egingo nuke Ardantza datoréla. ¿Onetarako dei egin didazu, Kontze?

—Nik eztiot beste inori ots egin.

—Ama, ama. ¿Nork ertsi du atea?

—Mikela: Yainkoaren zabal ezazu ta zoaz goitira, Ardantza oneratu baino lenago.

—Mikela ¿zertara etoñi zera onera?

—¿Ni? Txikitako lagun bat ikustera.

—¿Nork eman dizu eskubidea?

—Begiak eman dizkidanak, Yainkoak.

—¿Nork eman dizu eriak ikusi ta sendatu nai izatekoa? Baitegira eramango zaitut.

—¡Baitegira! ¿Nolako gaiztakeria egin dut, lapur ta eraileak bezela, ni baitu nai izateko? ¿Zeinek eman dio berorñi eskubide ori?

—Mikela, Mikela Sorgin: fofa erosteko dirua nai baduzu, izan zaitez eule, naiz abarkagin; etzaitez, ordea, sartu zilegi eztiran arazoetan.

—Niri Mikela Sorgin esateko beste eskubide dut nik ere Ardantza Kerten zuri esateko.

—Atso txerrenki, betere, minluze...

—(ALABAK). Tira, Mikela, zoaz etxera. Amagaisoak eztu onelako zauzkadarik bear ta zoaz.

—(MIKELAK). Kontze ¿sendatu nai ta astoari dei egin?

—(ALABAK). Tira, Mikela, neronek lagun egingo dizut.

—¿Sorgina naizela? ¡Ai banintz!

—¿Zer egingo zenuke?

—¿Zer egingo nukean? Atxeter guztiai astabelari galantak berenen orde ezari; ta, itz egin bear dutenetan, arantza eragin.

—Gazte: eramazu atso txerrenki ori nai dezun tokira, banatu eztezadan.

Sendamen, curación. *Atxeter*, médico. *Zurtz*, huérfano. *Ertsi*, cerrar. *Argitasun*, claridad. *Igitu*, moverse. *Antzi*, gemido, suspiro. *Eri*, enfermo. *Artazuritze*, deshoja del maíz. *Erai*, entraña. *Gaitza*, la enfermedad, mal. *Igaro*, pasar. *Aurmin*, dolores de parto. *Agoeri*, enfermedad de la boca. *Loki*, sien. *Gabi*, mazo. *Biotzere*, pirosis, acedia. *Maiz*, con frecuencia. *Irakin*, hervir. *Linazi*, simiente de lino. *Txaplata*, emplasto. *¡Iso!*, ¡chito!, ¡silencio! *Oinots*, ruido de pasos. *Mailadi*, escalera. *Atalondo*, portal, vestíbulo. *Goiti*, desván. *Eskubide*, facultad. *Baitegi*,

cárcel. *Eraile*, asesino. *Baitu*, apresar. *Eule*, tejedor. *Toña*, aguardiente. *Ordea*, mas, pero, en cambio. *Zilegi*, lícito. *Arazo*, ocupación. *Sorgin*, bruja. *Kerten*, majadero. *Txeñenki*, diabólico. *Beteñe*, de ojos ribeteados. *Minluze*, de lengua larga, lenguaraz. *Zankada*, impresión. *Astabelari*, orejas de burro. *Galant*, magnífico. *Itz egin bear dutenetan*, cuando (las veces que) tienen que hablar. *Banatu*, contundir, golpear fuertemente.

AITAREN BILDUR

(AUR-ANTZERKIA)

AGERKIDEAK

- | | | |
|---------------|---|-------------------------|
| MUÑILAK | } | 1. EZEKIEL. |
| | | 2. KAITANO. |
| | | 3. DIBUR. |
| | | 4. ZILIPURDI. |
| NEXKAK | } | 1. JOXEPA. |
| | | 2. ANA MARI. |
| | | 3. KREZENTZI, aurzaina. |
| | | 4. ISABELTXO. |

AMABIA (gizazaina).

Amasei bat urtekoa da Krezentzi; beste guztiak, muñil naiz nexka, amañetik amairura bitartekoak.

Tolosako Zumardian. Oraintsu.

LENENGO AGEÑALDIA

NEXKAK, alkañekin yostatzen.

(Bi mordotan edo elitan ager bitez nexkak: amar alde batean, amar bestean; guztiak zugatz andi baten babesean. Udako añatsalde argitsua da. Añizko zizalu batzuek eta zugatz asko ageri dira or-emenka).

1.º MORDOAK (Oiuka). Akeña ikusi degu baratzean yaten.

2.ak Makila ikusi degu aker ori yotzen.

1.ak Makilak akeña.

2.ak Akeñak artoa, akeña ken.

OROK. Baratzetik akeña ken; ken, ken, ken, ken.

1.ak Sua ikusi degu makila ori eñetzen.

2.ak Ura ikusi degu su ori itzaltzen.

1.ak Urak sua.

2.ak Suak makila.

1.ak Makilak akeña.

2.ak Akeñak artoa, akeña ken.

OROK. Baratzetik akeña ken; ken, ken, ken, ken.

1.ak Idia ikusi degu ur ori edaten.

2.ak Soka ikusi degu idi ori lotzen.

1.ak Sokeak idia.

2.ak Idiak ura.

1.ak Urak sua.

2.ak Suak makila.

1.ak Makilak akeña.

2.ak Akeñak artoa, akeña ken.

OROK. Baratzetik akeña ken; ken, ken, ken, ken.

1.ak Sagua ikusi degu soka ori etetzen.

2.ak Katua ikusi degu sagu ori añapatzen.

1.ak Katuak sagua.

2.ak Saguak soka.

1.ak Sokeak idia.

2.ak Idiak ura.

1.ak Urak sua.

2.ak Suak makila

1.ak Makilak akeña.

2.ak Akeñak artoa, akeña ken.

OROK. Baratzetik akeña ken; ken, ken, ken, ken.

1.ak Atsoa ikusi degu katu ofi yañaitzen.

2.ak Balbea ikusi degu atso ori zemaitzen.

1.ak Balbeak atsoa.

2.ak Atsoak katua.

1.ak Katuak sagua.

2.ak Saguak soka.

1.ak Sokeak idia.

2.ak Idiak ura.

1.ak Urak sua.

2.ak Suak makila.

1.ak Makilak akeña.

2.ak Akeñak artoa, akeña ken.

OROK. Baratzetik akeña ken; ken, ken, ken, ken.

(IZKETAN)

Jox. Auñak: ni aspertu naiz oiu egiten. ¿Nork nai du efeginaka yostatu?

OROK. Nik... nik... nik ere bai.

Jox. Nerau efegina.

- AN. ¿Beti efegina zu ta gu beti mirabe? Enabil ni efeginaka.
- OROK. Ni ere ez... ni ere ez... ezta ni ere.
- AN. (Aldafika). Sardina bizi bizia, Ondafabitik ekañi-beñiaaaaaa.
- JOX. Bero dago, sardina saltzen ibilteko. Denda yañi bear det. (Añizko zizalu baten gainean bildu bitza añi ta lur, orbel ta egur-kima ta beste zerbañt). Isabeltxo: aspaldion eztidazu ezer erosi. Len egu-nero agertzen zenidan; eta batean galtzerdiak, bestean gonagaiak naiz aurzapi txuri-txuriak erosita yoaten zinan. ¿Ezalduzu goizean ezertxo nai?
- ISAB. Etxeko andreak bazkari ugaria nai luke ta yanari-bila bidali nau. ¿Bâldezu aragirik?
- JOX. Emakumetxo: aragia arategian saltzen da. ¿Ezalzenekien? Emen pipeña, naiz olioa, naiz poñu ta azalandare, koipe ta gurin: zernai dut saltzeko ta merke.
- ISAB. Piper-autsa nai nuke: goñia ta beltza.
- JOX. Arestian saldu dut nuen piper goñi guztia. Beltzik eztut inoiz saldu. ¡Utikan! Gauza ziki-
nek nere dendan eztu sarpiderik. Piper oria nai baduzu, kanarioa bezelako ori-ori-oria dut, Madrildik oraindik orain ekaña (Orbel-gainean luña erakutsiko dio). Gibelia gozatzeko, piper oria da ongañirik egokiena.
- AN. Joxepa ¿erotu egin al zera? Piper oririk ezta Donostian ere. ¿Zu dendari? Pipeña zer dan eztakizun ori ¿dendari? (Uñutira begira). Krezen-tzi, Isabeltxo: zatozte nire dendara. (Beste neskatoai). Emen eztuzute arkituko ez piper

oririk, ez poñu beltzik. (Krezentzi ager bite besoe-
tan aurño bat naiz kopin bat duela).

Jox. (Erdi-sapusturik). Nire amaren alabari ezti
Ana Marik zer zer dan erakutsiko. Isabeltxo :
zatoz bañura. Zatozkit zu ere, Krezentzi. Eda-
riak ere baditut. Bazkari ona nai duena, ez
besteregana yoan. Odolkiak, txefi-buruak,
urdai-azpiko koipe-bagea: merke, merke.

KRKZ. ¿Zeinbategan odolki aukeratu?

Jox. Bi eñeal bakoitza, irurak artzera bost eñealen
eraman. Martina txiki ¿ik ezaldun ezertxo
bear? Sayeskia ere badut, lukainka ta ziztor
goñi edeñak.

An. (Beraren tokia utzita). Udan ezta zefirik ilten.
¡Saieskia! ¡Lukainkak! ¿Zu dendari? Etoñi,
neskatxa politak, etoñi nire dendara. Merke,
merke.

Jox. (Benaz). Bi bider yaio bear izango duzu, nire
maistra izateko. ¿Uda alda? ¿Ezalgera egu-
befi-añean?

An. ¡Atzo Santa Ana-eguna ta biar egubefiak!
¡Ui! Pañe egin zazute, gazteak, pañe. (Mutil
koskoñak ageri dira, zortzi bat).

Jox. Yostatzen ari geranean, beñi da uda ta beñi
negua: bakoitzak nai duena. Merke, merke.
Krexentzi ¿zertan gelditzen zera? ¿Zeinbat
odolki nai dituzu? Neronek eginak dira.

BIGAREN AGERALDIA

NEXKAK ETA MUTILAK

EZEK. (Joxepari). Odolkiak niri: sei.

Jox. Eztut nik odolkirik zuretzat.

EZEK. Erakutsi niri txapel gofi bat: zeinbat gofiago, naiago.

JOX. Eztut txapelik ere.

EZEK. ¿Zer dun orduan salgai?

JOX. Nik deusik ere ez zuentzat, neskatilentzako denda da nirea.

EZEK. Ken ortik orduan: ken, ken.

JOX. ¿Zurea alda Zumardia? Zoazte zuek beste toki batera.

EZEK. (Erdi-asafez). Kentzeko; bestelan plist-plast.

JOX. (Ezekielek kenduta). Lotsagabe, lotsagabe, lotsagabea.

EZEK. (Joxepak bezela). Lotsagabe, lotsagabe, lotsagabea. (Itz bakoitzaren ondoren zaplada bat emango dio).

JOX. (Negafez). Ire Aitari esango zioat eta ikusiko duk.

EZEK. ¡Nire Aitari! Begira ¿e?

JOX. Bai, ire Aitari esango zioat.

EZEK. Zati-zati egingo aut, Yoxepa negarti, nire etxera baoa.

JOX. (Ufutiagotik). Lotsagabe, lotsagabe, petral zikin orek, yo zak aundiagoa. (Yoseparen atzetik biyoaz beraren lagunak ere).

IRUGAÑEN AGEÑALDIA

MUTILAK

EZEK. (Kartak sakeletik aterata). Briskan yoka dezagun, Kaitano: bik biri.

KAIT. Ire kartakin ez, oriekin befi ik irabazten duk-eta. Nereakin nai baduk, bai: befi befiak zeuz-

KAT. (Sakeletik atera bitza beronen karta zar batzuek).
EZEK. Ekatzak ikusteko (Kartak ikertuz). ¡Au gezur-
tia! ¡Beñi-beñiak dauzkala! Ezagunak dituk
karta auek.

KAIT. ¡Bai ta ireak ez! ¡Ja-jai! Nire auek irutxo ze-
uzkatek orzelakoak. Bateko ezpatak ezpaina
zeukak autsia. Iruko ur̄ea ur̄atua zegok.

EZEK. ¿Au zein duk bâ, beltz zikin au?

KAIT. Ori, ikusi bage ere bazekiat zein dan: zazpiko-
bastoia.

EZEK. Zilipurdi: eseri or. Tximista bezela irabaziko-
ziegu auei.


ZILIP. Nik eztiat dirurik.

EZEK. Ez nik ere; bainan Andre Mariz ematea.

KAIT. Dibur: Ezekieli musura ongi begiratu gero.
Azeri zaña duk au.

EZEK. ¿Zer yokatuko diagu?

KAIT. Semaiko bana bi yokutara, txakur txiki bana.
(Beste irurak luñean eseri bitez. Ezekiel belauniko yañiko-
da, erpoen gainean atzea duela. Era onetan yañi bitez:



Yokolariai eskuetara begira lau baf mutiko zutik egongo
dira).

EZEK. ¿Nolako keinuak?

KAIT. ¿Esan beaña aldago? Oi bezelakoak: batekoa dugunean, mingaina atera; irukoa dugunean, begi bat ertsi; elege adierazteko, beko ez-paina ortz-artean sartu.

EZEK. Keinu oriek amonen briskakoak dituk. Nai duenak, nai duena. Zilipurdi: agopean esango dizkiat gureak. Ator onera. (Biak yeikita, alde batera yoanez, luzaro egongo dira eskuketan, izka bezela Beste ainbeste egin bezate beren naikide Kaitanok eta Dibuek. Bitartean neskak. ageri eztirala, ufengo aur-kanta oiuka bezate).

NEXKAK (Agertokitik ate, oiuka).

Txintxin txirikitin txorie,
txoritxo txilibitarie:
erein nuen garie,
oso arlo aundie,
uste nuen eun anega,
imina bat zan guztie (bis):
txintxin txirikitin txorie,
txoritxo txilibitarie.

Txintxin txirikitin txorie,
txoritxo txilibitarie:
miz miz katu zurie,
yaurti nion arie,
aren orde z mindu nûn
atsoaren bekokie (bis):
txintxin txirikitin txorie,
txoritxo txilibitarie.

- EZEK.** (Neskai). Isilik eta etxera.
- NEXKAK.** Txintxin txirikitin txorie
txoritxo txilibitarie:
atsoaren zaurie
sendatzera etorie,
ogesabaian da ageri
txindor papar goñie,
txiolaritxo zolie:
txintxin txirikitin txorie
txoritxo txilibitarie.
- EZEK.** (Luñetik ari bat eskuratuz). Isilik egoteko, bestela
amonarengana arika eramango zaiiuztet.
- KAIT.** (Kartak eskuan dituelarik). Oñazta itzak ik, Zili-
purdi. Ebaki, Dibur.
- EZEK.** (Len bezela, beraren lekuan belauniko yañirik). E, Kai-
tano: gizalegean egin bear diagu emen. Atera
zak karta bat. Uñea bada, ni izango nauk
emateko. Bastoia bada, erori. (Kaitanok karta
bat atera beza). Oñela. Uñea. Ebaki. (Kartak eskuan
dituela). Tori, tori, tori... Kopa. Zazpikoa due-
nak eraman dezala.
- DIB.** (Kaitanori). ¿Eta, lagun? ¿Zer nik?
- KAIT.** Bota txar.
- EZEK.** (Ozen ozen). Zilipurdi. utsa dik Kaitanok, utsa.
Yo briska. ¿Eztut nik esan? Kaitano: aratsal-
de luzea zeukagu ta gero zerbait izango duk.
- KAIT.** ¿Kartak ikusi egin aldizkidak?
- EZEK.** Begietan igari diat. Nik orain bikotxoaz zipla-
tuko dut ori. Eskutik nik txar. Dibur: il ezak
au, al baduk. Zilipurdi: eman bi tantotxo.
(Isilunetxo bat).
- DIB.** (Zilipurdiri). Arzak ik lenengo, erofek il duk

- eta. Yoka, nai dekana. (Ezekiel Kaltanoren kartai begira).
- KAIT.** Ezekiel: buru ori atzerago. Dibur: kartak ongi gorde.
- EZEK.** Bildurtzen asi dituk auek. Yoka zak nai dekana: briska nai baduk, briska; txar nai baduk; txar.
- KAIT.** (Diburi). ¿Zerañen eztituk bi edo iru tantu eskatu? Irten, Dibar; txar beti eskutik.
- EZEK.** Yo erara briska aundi bat, amaikakoa. ¡Ori, ori besoa! Kaitanok eztu pitsik. Beste bat nik. ¡Au mantxunga!
- KAIT.** Bai, ikusita. Nik ere ofela igariro nitek.
- ZILIP.** ¿Zazpikoarentzat eztugu esan?
- KAIT.** (Beraren kartak luñera yaurtikiz). Au eztuk yokatzea. Den-dena berok. Ibili azkar. Yoka, Zilipurdi.
- ZILIP.** ¿Briskarik baduk, lagun?
- EZEK.** Yoka nai dekana. Auei ankape ere irabaziko ziegu. Yo, Kaitano. Niretzat ori.
- ZILIP.** ¡lrukoa ik!
- EZEK.** ¿Ezalduk eztula entzun? Gutxienez iru aldiz egin diat.
- KAIT.** ¡Tira! yoka, Ezekiel; yoka, Dibur; yoka, Zilipurdi. Au galdu diagu.
- EZEK.** Zeinbat egin dugun yakin bear diat.
- KAIT.** ¿Zertarako? Irabazi duzuela ¡afaiea! bein esanezkero. ¡Tira! bildu kartok (Ezekiel tantuak zeinbatzen ari danartean, neskak zumardian, ageri ezterala, beste aur-kantafxo au entzun arazi bezate).

NEXKAK (Oiuka).

1.º BLIAK. Dirurik zuririk ez beltzikan

Joxantoniok etzeukan,
zuñutño bat edateko,
uiol-egun batean,
eñekara yoan zan,
keskalutako ustean:
eñota txikiak klin-klan (bis).
Eñekan zegola, keskalurik
Joxantoniok alerik
ezin atxituz; gogaitu
zuen bizi-bizirik,
itzuli zan uts-utsik,
loben-zuriko gaberik :
sabel yan-gabeak klik-klik (bis).

2. ak

KAIT. (Neskai deadañez). Alde, alde ortik, neskato be-
fitsuok. Zoazte eltzeari gatza ematera.

NEXKA OROK (Oyuka).

Ífiz ta-eñukiz «o Joxanton
Yainkoak dikala gabon»
etxean sartu zanean
andreak esan zion,
maia uts-utsik zegon :
gau artan gaixoak Bilbon
zegin ametsetan bonbon (bis).

EZEK. (Pozik zutituz). Eun, eun egin ditugu, (Oiuka ta
txalo yoaz). «Txalopin txalo, txalo ta txalo.

KAIT. ¿Eun? ¡Amaika gezur esaten diguk! ¡Eun!

EZEK. ¿Ezetz? Eroñek ikusiko duk. (Befiz zeinbatuz).
Kaitano ¿zer duk au? ¿lrukoa?

- KAIT. ¿Ezaldiagu ikusten?
- EZEK. Orduan amar. Amar ta amar, ogei; ogei ta lau, ogei ta sei, ogeita amasei, befogei, befogei ta bi, bost, befogei ta bederatzi ¡¡Gizagaixoak!! Irurogei, irurogei ta lau, irurogei ta zazpi.
- DIB. (Asafez). Irurogei ta sei.
- EZEK. ¡Tira! Irurogei ta sei; irurogei ta amasei, laurogei, laurogei ta iru, zazpi, amar, amalau, laurogeita amasei.
- DIB. Eztituk eun.
- EZEK. Eun, lau gutxiago. Zilipurdi: etziok inor gu bezelakorik.
- KAIT. ¡Astaputz, afoxko! Guk ere bazekiagu irabazten.
- EZEK. Yoku bat irabazi diagu ¿e? bat bitarako. Gero gezurik ez asmatu: bat guk. Ongi nasi kartok. Eman, Dibur.
- DIB. (Kartak ematen ari dala). Ezekielek bateko ezpata.
- EZEK. ¡Purgatorioko arima pielak! ¡Ai, azpikoa ezpata baliiz!
- DIB. (Betilunik). ¡Ezpata!
- EZEK. (Pozik). ¡Ori, ori! Irabaziko diagu au ere, Zilipurdi. Emen zegok Ezpain-autsi: emen, emen. (Guztai erakutsiz).
- KAIT. ¡Auxe duk Ezekiel afo!
- EZEK. Duenak erakusten dik; eztuenak, burua markurtu. Zilipurdi ¿briskarik?
- ZILIP. Bai bi ere, nai badituk.
- EZEK. Atera aundiena. Or doa zaldia. Auek eztute zaldia iltekorik. Iruko urea Kaitanok afopatu dik.

- KAIT. (Ufutura begira). Amabia dator, gizazaina; Joxepa lagun duela. Bildu kartok.
- EZEK. Ez, au amaitu bage.
- KAIT. (Zutituz). Bildu, bildu, nireak dira-ta.
- EZEK. ¿Irabazitzat ematen alduzue?
- KAIT. Biltzeko, biltzeko.
- EZEK. (Eskua zabalduz). Eman niri irabazi dudan semaikoa ta orduantxe bilduko dizkiat.
- KAIT. ¿Andre Mariz ematea, ezalduk eroñek esan?
- EZEK. Orain ez-tuenak, orduan ematea. Orain duenak, oraintxe eman dezala.
- KAIT. ¿Nik orain iri eman? Adaña.
- EZEK. Beraz karta auek niretzat. (Karta batzuek sakelean gorde bitza).
- KAIT. Añapatuko gaituela.
- EZEK. Eman niri semaikoa, txakur txikia.
- KAIT. Mutuñeko bat bai, nai baduk.
- EZEK. ¿Ik mutuñekoa niri? ¿Ezalduk uste nik baino indar geiago dekala?
- KAIT. ¡Txatxua! Mingainean duk ik indar geiegi.
- EZEK. Ik aldiz ez mingainean, ez besoetan, ez buruan, kerten oñek.

LAUGAÑEN AGEÑALDIA

EZEKIEL, KAITANO, AMABIA TA JOXEPA

(Ufutixeago mutil ta neska batzuek).

- AMAB. (Ezekieli besotik elduta). Ekatzak karta oriek.
- EZEK. Eztira nireak. (Kaitanori). ¿Semaikoa galdu alduk?

- KAIT. Bai, galdutzat.
- EZEK. Tori kartok. Dirua niri.
- KAIT. Andre Mariz emango diat. (Kaitano, kartak eskuetan dituelan, igesi bioa. Amabiak karta batzuek bildu bitza).
- AMAB. (Josepari). Neskato ¿au alda yo zaituena?
- JOX. Auxe, Ezekiel.
- AMAB. ¿Ezekiel? ¿Zapatariaren semea alda? ¡Araio pola! Txori polita. ¿Zergaitik yo duk neskatxa gaixo au?
- EZEK. Lotsagabea iru aldiz esan didalako.
- JOX. Ta beronek denda kendu dit.
- AMAB. ¿Zergaitik kendu diok denda?
- EZEK. Txapel goñia saltzeko esan diot eta beronek saldu nai ez.

(Neska guztiak amabiaren inguruan).

- AMAB. Joxepa: ik ere saldu bear uen.
- JOX. Muñilak muñilakin yosta ditezuela. Iru masailako eman dizkit, yauna.
- AMAB. ¿Iru? Nik ere orduan beste iru, bealdeko masailetan. (Makila yasota iru aldiz yo-irudia egingo du). Bat (Ezekielek: «ai, ai»). Bi. Iru. Orain yoan adi, Ezekiel, ta eskumuñak eman Aitari.
- EZEK. (Ufütitik, eskua begietatik kenduz). Joxepa: iluntzerako sei artuko ditun.
- AMAB. (Kresentziri besoetako aurá kenduz). Moñoño: eman niri ma. ¿Nungoa zera, neskatxa?
- KREZ. ¿Ni? Zegamakoa, yauna.
- AMAB. Ango beñi nik ere badakit. ¿Zein etxetakoa zera?

KREZ. ¿Mari Teres labeko ezaldaki nor dan? Añetxen alaba gaztena ni.

AMAB. ¿Luzaro alzaude alkate yaunarenean?

KREZ. Aur auxe yaio zanean etoña naiz.

AMAB. ¿Ta atseginez, e?

KREZ. Bai, yauna.

AMAB. Ongi yan, lanik ez, eguraldi onez egurastu. Zegaman ezta onelako bizikerarik. Irabazi ere poliki naski. ¿Ilean bi ala iru astapeña?

KREZ. ¿Zer dugu ori?

AMAB. Zegamaña izan ta astapeña zer dan yakin ez? Andik uruti eztan Ataunen ikasi nuen oñela izketan. Astapeña ta duroa naiz ogerlekoa berdin dira.

ISAB. «Txalen begia» ere izendatzen dute.

JOX. Oña Isabeltxok ere. ¡Nun izan lezakean gauza!

AMAB. (Krezentziri). ¿Ilean zeinbat ematen dizute?

KREZ. Amari bidaltzen diote saria ta eztaikit.

AMAB. (Beñiz aña gora ta bêra erabiliz). Moñoño, Tolo-sako aña edeña i aiz. ¡Aupa! ¡Aupa! ¡Aupa beñiz ere! (Krezentziri). ¿Ibilten badaiki?

KREZ. ¿Zazpi ilebeteko aña ibilten ikasi? ¿Arkumea alda?

AMAB. Neronek irakatsiko diot. (Amabiak, aur aizuna, kopia, bean zutik yafita, batean atzeraka, bestean aurrerantz berabil).

Moñoño: amaika dantza eder egin bear duk, Aitonaren antzekoa izatekoa bâniz. (Krezentziri). ¿Etxeko andreak azten alditu beraren aña?

KREZ. Au bai beintzat. (Ar beza Krezentzik beñiz besoetan aña).

AMAB. Yainkoak bedeinkaturik guri-guria ta mardula dezue berau. (Ezekielek isil-ostuka atzetik oñatz ba-

- tez paper andi bat itsatsiko dio amabiari). ¿Zeinbat aur ditu alkate yaunak?
- KREZ.** Bost seme-alaba dira, zafrenak zortzi urte ditu.
- AMAB.** Onen sendo edefak beste laurak badira...
¿Ze izen du beronek?
- KREZ.** Adolfo.
- AMAB.** ¿Adolfo? ¡Jakina! ¿Ta besteak ere Fernando ta Eñoberto edo beste izen arotz orietakoren batzuek ezaldituzte? Bai, enura bage. Bein aberastuezkero, artoa sutan bezelaxe arotzen da gizona.
- KREZ.** (Pañez). ¿Nolako izenak yañi bear otedira?
- AMAB.** Dirudunen artean eztugu entzuten lenagoko izen eder mamintsurik: Prudentzio, Gergorio. ¿Zer nai duzu edefagorik? Pantaleon, Anakleto, Sebastian: izen auek agoa gozaro betetzen digute. Baina uri andietako mutiko txankame beluri oriek...
- EZEK.** (Urutitik). Moñoño, Moñoño: eraman atzeko bulda ori Alkate yaunari ta eskumuñak. (Igesi lasterka).
- JOX.** (Amabiari). Prudentzio ¡Ezekielek, petralak alakoak, egin diona! (Papera askatu ta erakutsi bezaio Amabia, aña Krezentziri emanaz, lasterka Ezekielen ondoren bioa).
- KREZ.** Eztu añapatuko, onezkero zubira eldu izango dira mutil koskoñak. (Neskato batzuek amabiaren atzetik urutira yoango dira).
- JOX.** (Deadañez). Prudentzio: Ezekielek ezkeñeko bidea arñu du; mendian gora yoan alda.

BOSKAÑEN AGERÁLDIA

NEXKAK, banaka agertuz

- AN. (Deadafez). Isabeltxoooo, Martina txikiiii, Mari Tereeeeees: zatozte yostatzera.
- JOX. ¿Akeñarena beñiz ere oiukatuko otedugu?
- KREZ. ¿Beti bai?
- AN. ¿Ta beti oiuka? Beste zer bait egin dezagun.
- JOX. Aski da nik «bai» esatea, Ana Marik «ez» gaineratzeko.
- AN. Dendarika ari gerala, mutil koskor aiek saila eten digute ta oñegatik yostatzea aitatu dut.
- JOX. Orain beñiz, ez zurea ez nirea: Krezentzik ipuintxo bat edatsi dezagula (Askok txalo egingo dute).
- AN. Neronek ere nai dut ori. (Krezentziri eskalzinuka). Krezentzi.
- JOX. (Berdin) Krezentzi. Zegamako pitxilore polit oñek ¿ipuintxo bat ezaldiguzu edatsiko?
- KREZ. Etzerate egoten isilik-eta...
- JOX. Isil-isil-isiltxorik egongo gera.
- AN. Guzti-guzti-guztiok. (Oro Krezentzi loisintzen ari bitez).
- KREZ. Eseri zaitezte luñean. (Krezentzi añizko zizaluan eseriko da, beste neskato guztiak luñean, beraren inguruan).
- Tori aña, Ana Mari.
- JOX. Nik artuko dizut.
- AN. Niri esan dit. Au beñiz beti berau. (Ana Marik ar beza besoetan Krezentziren kopina).
- JOX. (Lagunai). Añak: gero belañiak zur ta mingaina bañuan geldi.

- KREZ. ¿Bagera? (Neskato guztlak Krezentziari adi-adi).
- AN. Asi.
- KREZ. Zerura yoan zan bein gizontxo bat.
- ISAB. Ni ere pozik yoango nintzake.
- JOX. (Asafez). Zerura ez, etxera yoango zera zu isilik egon nai ezpaduzu. Gazteak ¿eztaku-tsue gure «moxca muerta?»
- AN. Barka, Krezentzi, ta auñera.
- KREZ. ¿Bagera?
- AN. Baietz, bagerala.
- KREZ. Zerura yoan zan bein gizontxo bat. Atea er-tsia zegoen. Kaxk-kaxk yo zuen ta inork etzion erantzun; ñan-ñan yo zuen gogorxeago ta beñiz ere inor ageri ez. Belaña ate-zirikitura urbilduz, luzarotxo egon zan adi. Aingeruak oiuka ari omenziran ta noizean bein mintzura lodi-lodizko itzaldia—sermoia—entzuten omenzuen. Dran-dran yo zuen gero ukabilez. «¿Nor da? galde egin zion norbaitek bañutik. —Nerau naiz.—Eta zerori ¿nor zaitugu? Elizgelari—sakristau—gaixo bat.—¿Zer nai luke sakristau gaixo bat oñek?—Sarpidea—¿Sarpidea? Sakristau gutxixko artzen ditugu emen. (Pañe neskatoak). ¿Eta nungoa zera?—Ni, yau-na, Lañaungo Baraibañen yaio, bizi ta il naiz; antxe izan nauzu elizgelari beñogei urtez.—Zaude puska batean». Atezainak, San Pedrok, liburu aundi bat zabaldua, «¿Baraibarko sakristaua esan duzu? ¿Ta izena nola?—Joxe Premiñ, yauna». Hmmm egin zuen San Pedrok. (Pañe neskatoak). Hmm beñiz ere. «¡Amai-ka mozkor artu dituk, Joxe, beñogei urte ori-

etan!—Yauna, yai andietan baizik ez.—Eta artzekotan ere ¿yaiegunez artu bear? Ainbat gaiztoago. Bonbilari ere, apaizaren isilik erdiustuta, ura ezartzen ion ta gero meza bai ta meza ez.—Ori gutxitan, etxeoengatik ta burua galdua nuenean.—Etziok emen iretzat tokirik». Yainkoa ta atezaina asi ziran orduan autuan. PEDRO ¿NOREKIN ARI AIZ ORELA?—YAUNA, EMEN ARIMA BAT DA, BARURA NAI LUKEALA.—EZTA LEKURIK, EZTA LEKURIK, DOAIELA SULLEIZERA ORTIK». GAIXOAK NEGAR EGITEN ZUEN, ZORIGAIZTOZKO MUNDUAN ETXEAGATIK, ETXEKOENGATIK, GALDU ZUELAKO ZERUA. AI EZ ORAINIK, AI EZ ORAINIK (erantzun zuen sakristau zoribageak) ITXAROPEN DUT AMARENGANIK (1). Etoñi zan gero Andre Maria ta Semeari Joxe Premiñen alde itz egin zion. Semeak, atosteko liburu aundi hura San Pedroren eskutik artu ta zabalduz, amari sakristaukeri izugañiak irakuñerazi zizkion. Aurpegia beluri-beluri zuela, Andre Mariak orduan negar egin zuen. Atezain buruzuriak, itzik ez mitzik ebaki bage, betiko ilun beltzera atera zuen andik Baraibarko agure zoribagea.

AN. Gaixoa. (Ana Marik eta beste batzuek eskuz begiak estali bitzate, negañez bezela).

KREZ. (Zutik). Negañok kentzeko, ipuin onetxen zafitxo bat Teresak-eta oiukatuko dugu. Niri

(1) Itz lodi auek Baraibarko bati entzun nizkion, beron musika egokiaz. Beste argitasunik eman etzidatelako, berak gai dirala ipuintxo orl egitea otu zait. SULBIZERA-ren ordeZ INFERNURA esan zidaten; ARI AIZ-en ordeZ AGO; ITXAROPEN-itzat ESPERANTZA (sic).

ikasita dakizue zuek. Ezalzerate oroitzen arako «Pedro ¿norekin ari aiz oñela?».

BATEK. Bai, Krezentzi.

KREZ. Asi gaitezen beraz.

(Lau-bost neskatok oiuka).

Pedro ¿norekin ari aiz oñela?

—Yauna, emen arima bat da, zerura nai lukeala.

—Ezta lekurik, ezta lekurik; doaiela suleizera ortik.

—Gaixoak negar egiten zuen, zorigaiztozko munduan etxeagatik, etxeakoengatik galdu zuelako zerua.

—¡Ai, ez orainik; ai, ez orainik! itxaropen dut amarenganik.

—Seme, eruki diat gaixo au.

¿Odol beroz erosi onek orain samurtzen ezalau?

—Ama, inola egin al balitz, zure naia negike itzez itz.

—Mendi artan ni zutik bezela, maiterik au belauniko opalartean lagun maiz izan ¿ta ezalduk azketsiko?

—Onen bizitza zeroñek ikus badezazu, galdu da betiko.



(Izketan).

AN. Oso taxa ta gozoa da, Krezentzi; oiuki ori.
¿Zergaitik eztinguzu guri irakatsi?

SEIGAÑEN AGEÑALDIA

LENAK ETA AMABIA TA EZEKIEL

Jox. Nexkak: Ezekiel baitu du Prudentziok.
Edeñak emango dizkio; bai bear ere, mats-
-aiena baino okeñago baita.

EZEK. (Negañez amabiari, ez bata ez bestea agertzen eztirala).
Eztudala nai aitarengana agertu; ez, ez; enaiz
yoango.

AMAB. Txerenko: amak gaizki azi bâu, aítak zuzendu
ezala. Berarengana bear duk.

EZEK. (Agertokian, amabiak besotik gogor dautsalarik). Bar-
ka, yauna, barka; eztut geiago egingo. Ez
aitarengana ¡otoi! aítarengana ez, zatituko
nau-ta.

Jox. (Biguñ-biguñ). Ezekieltxo, Exekiel ¿txapel gofia
ezalzenduen nai? Prudentziok emango dizu
yipoia ere.

AN. Gaixoari, geiago eztu egingo-ta, barka bezaio.

KREZ. Prudentzio ¿aitarengana eramango aldu, gai-
xo ori?

AMAB. Zuk otoiz egin duzunezkero, gu ere aur iza-
nak gera-ta ¡tira! Exekiel ¿Aitaren bildur
alaiz?

EZEK. (Belauniko ta erdi negañez). Bai; yauna, Aitaren
bildur-bildur naiz. Eztut geiago egingo.
Barka bezait, Yainkoaren.

AMAB. Mutiko gaixo ori, yoan adi ire bidean lokabe;
eta ar itzak karta auek ere. (Ezeklelek muñ egin
bezaio amabiari, kartak arkeran. Mutiko batzuek ager-
bitez).

(Oro oiuka)

¡Oí bart, oi bart! Usapal bi ta eper bat
yanaritzat, yanaritzat: iru atsorekin amabost
agurek ¡ai, zer aparia genuen bart! ¡ai, zer
aparia genuen bart!

¡Oí bart, oi bart! Bederatzi zezen aundi,
zortzi idi ta zazpi bei, sei âri ta bost antzar,
lau oílo, iru uso, usapal bi ta eper bat ya-
naritzat, yanaritzat: iru atsorekin amabost
agurek ¡ai, zer aparia genuen bart! ¡ai, zer
aparia genuen bart!

¡Oí bart, oi bart! Amabi zama ardo zuri,
amaika zama ardo beltz, amar anega ogi
berí, bederatzi zezen aundi, zortzi idi ta zazpi
bei, sei-âri ta bost antzar, lau oílo, iru uso,
usapal bi ta eper bat yanaritzat: iru atsore-
kin amabost agurek ¡ai, zer aparia genuen
bart! ¡ai, zer aparia genuen bart! ¡genuen bart!


AGERTOIALA BÊRA

NOTA.— I. Todos los vocablos contenidos en esta comedia,
anteriormente no expuestos, los tendrá el lector en el vocabulario
que se ha impreso por separado.

II. De las letrillas de los cinco cantos populares contenidos en
este sainete lírico, dos pertenecen por entero al autor; como también
la segunda estrofa del romance religioso. Al publicarse el *Cancio-
nero Vasco* se expondrá la letra popular de las canciones junto a
las reformadas, cuya propiedad, como es natural, se reserva el
autor.

NÚM. 1


AKERRARENA



1. A - kerr - a i - ku - si
2. Su a i - ku si
3. I - di - a i - ku - si
4. Sa - gu - a i - ku - si
5. A - tso a i - ku - si



de - gu ba - ra - tze - an ja - ten. Ma -
de - gu ma - ki - la o - ri err - e - tzen. Ur -
de - gu ur o - ri e - da - ten. So -
de - gu so ka o - ri e - te - tzen. Ka -
de - gu ka tu orr - i ja - rrai - tzen. Bal -



ki - la i - ku - si de - gu a - ker o - ri jo -
a i - ku - si de - gu su o - ri i - tza -
ka i - ku - si de - gu i - di o - ri lo -
tu a i - ku - si de - gu sa - gu o - ri arra - pa -
be - a i - ku - si de - gu a - tso o - ri ze - mai -



tzen: ma - ki - lak a - kerr - a, a - kerr - ak
tzen: u - rak su - a, su - ak
tzen: so - ke - ak i - di - a, i - di - ak
tzen: ka - tu - ak sa - gu - a, sa - gu - ak
tzen: bal - be - ak a - tso - a, a - tso - ak



ar - to - a, a - kerr - a ken. Ba - ra -
ma - ki la ma - ki - lak (1).
u - ra, u - rak (1).
so - ke - a, so - ke - ak (1).
ka - tu - a, ka - tu - ak (1).



tze tik a - kerr - a ken: ken, ken, ken,

Las primeras veces.

(2)



ken.

La última vez.



ken.

Esta canción está muy en boga en el País Vasco y tiene un sinfín de variantes. Hay comarcas en que hacen figurar en la retahila varios otros personajes, como herrero, viga, lobo, perro, zorro, etc.

En vez de *Balbe*, personificación de la muerte, se valen de *Erioa*, la muerte, por lo menos en Deva y Baigorri. El pueblo presenta a los personajes de uno en uno, repitiendo la misma melodía hasta diez veces, lo cual se ha tratado de evitar, dando a la canción la forma precedente, sin alterar, sin embargo, ni siquiera una nota.

(1) Después de cada número se repiten los anteriores, siguiendo siempre hasta el fin. Para más claridad consúltese el texto en la pág. 132.


(2) A veces hay más compases de espera.

NÚM. 2

TŠINTŠIN TŠIRIKITIN



- 1. Tšin-tšin tši - ri - ki - tin tšo - ri -
- 2. Tšin-tšin.
- 5. Tšin-tšin.



e tšo - ri - tšo tši - li - bi - ta - ri -



e: e - rein nu - en ga - ri - e o - so
 miz miz ka - tu zu - ri - e, jaur - ti
 a - tso - a - ren zau - ri - e sen - da -





ar - lo an - di - e, us - te nu - en eun a
 ni - on a - rri - e, a - ren or - dez min - du
 tze - ra e - torr - i - e, o - ge sa - ba - yan da a -



ne - ga i - mi - na bat zan guz - ti - e, i - mi - na
 nun a - tso - a - ren be - ko - ki - e, a - tso - a
 ge - ri tšin - dor pa - par go - rri - e, tši - o - la -




bat zan guz - ti - e. Tšin-tšin tši - ri - ki - tin
 ren be - ko - ki - e. Tšin-tšin.
 - ri - tšo zo - li - e. Tšin-tšin.



NÚM. 3

DIRURIK ZURIRIK

Allegro.



Di - ru - rik zu - ri - rik
Err - e - kan ze - go - la
Irr - iz ta err - u - kiz




ez bel - tzik - an Jo - san - to - ni - ok e - tzeu -
kes - ka lu - rik Jo - san - to - ni - ok a - le -
o Jo - san - ton, Jain - ko - ak di - ka - la ga -



kan zurr - ut - fio bat e - da - te - ko, u - jol
rik e - zin a - tsi - tuz go - gai - tu zu - en
bon e - tse - an sar - tu za - ne - an an - dre -



e - gun ba - te - an err - e - ka - ra jo - an
bi - zi - bi - zi - rik, i - tzu - li zan uts uts -
ak e - san zi - on, ma - ya uts uts - ik ze -



zan kes - ka - lu - ta - ko us - te - an: err - o - ta
ik, lo - ben ez ar - dit ga - be - rik: sa - bel jan -
gon: gau ar - tan gai - so - ak Bil - bon ze - gin a -



tši - ki - ak klin klan, err - o - ta
ga - be - ak klik klik, sa - bel jan
me - tse - tan bon bon, ze - gin a



tši - ki - ak klin klan.
ga - be - ak klik klik.
me tse - tan bon bon.


NÚM. 4

¿PEDRO, NOREKIN?

Andante mosso



¿Pe-dro, no - re - kin a - ri - aiz
Se me, e - rru - ki di - at



o - rre - la? — Jau - na, e - men a - ri - ma
gai - šo au. ¿O - dol be - roz gar - bi - tu




bat da, ze - ru - ra nai lu - ke - a -
ba - tek, o - rain sa - mur - tzen ez - al -




la. — Ez - ta le - ku - rik, ez - ta
au? — A - ma, i - no - la e - gin



le - ku - rik. do - a - ye - la su - lei - ze -
al ba - litz, zu - re na - ya ne - gi - ke



ra or-tik. Gai-so - ak ne-gar
i-tzez itz Men-di ar-tan ni




e-gi-ten zu-en, zo-ri-gaiz-toz-ko mun-du-
zu-tik be-ze-la, mai-te-rik au be-laun-i-



an e-tse-a-ga-tik, e-tse-koen-ga-tik
ko o-pal-ar-te-an la-gun maiz i-zan



gal-du zue-la-ko ze-ru-a.—|Ay, ez
ta ez-al-dek az-ke-tsi-ko? — O-nen



o-rain-ik; ay, ez o-rain-ik! i-tsa-
bi-zi-tza ze rorr- ek i-kus ba-de-



ro-pen dut a ma-ren ga-nik.
za-zu, gal-du da be-ti-ko.


NÚM. 5

¡OI BART!


Allegro



¡Oí bart! ¡oi




bart! u-sa-pal bi ta e-per bat jan-a-ri-




tzat, jan - a - ri - tzat: i - ru a - tso - re - kin



a - ma - bost a - gu - rek jai, zer a -



pa - ri - a ge - nu - en bart! jai, zer a -



pa - ri - a ge - nu - en bart!



!Oi bart, oi bart! be - de




ra - tzi ze - zen aun - di, zor - tzi i - di ta




zaz - pi bei, sei a - ri ta bost an -



tzar, lau oi - lo, i - ru u -



so, u - sa - pal bi ta e - per bat jan - a ri -



tzat, jan - a - ri - tzat: i - ru a - tso - re - kin




a - ma - bost a gu - rek |ai, zer a :



pa - ri - a ge - nu - en bart! |ai, zer a



pa - ri - a ge - nu - en bart!



¡Oí



bart, oi bart! a - ma - bi za - ma ar - do



zu - ri, a - mai ka za - ma ar - do



beltz, a - mar a - ne - ga ogi be - rri



be - de . lge nu - en



bart!







